

## Harriti giza proba taldea Bizkaiko giza proba talde bakarra

10. orrialdea

## Auzolandegiak Lemoatxen

2013tik urtero lez, orain 80 urte gudu zelai izan zana, auzolandegi bihurtu da garagarrilaren bigarren hamabostaldian eta abuztuaren lehenengoan. Han Euskal Herriko gazteak eta kanpokoak, Aranzadi Zientzia Elkarte teknika-rien zuzendaritzapean, batailearen eszenalekua berreskuratzeko egiten dabe behar. Lehenengo txandan, 18 gazte egon dira. 12. orrialdea



## Lemoako Pelota Eskoleak ikasturteko balantze ona egin dau

11. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 278

2017ko abuztuaren 2a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Zeanuri, Areatza eta Zeberio jaietarako prest

Abuztuan jai giroa da nagusi Arratiako bazter guztietan. Zeanurin eta Areatzan herriko jaiak ospatuko dabez. Zeberioko jaiak urri lehenengoan izan arren, oraingo hilean hasiko dira.

**H**ilaren erdikaldean dira Zeanuriko jaiak, andramariak. Herriko txistulari eta trikitilariak emongo deutsee hasikerea eta amaiera eta jai giroa ipiniko dabe. Hilaren 12an, gazteen gauagaz abiatuko dira bost egunez luzatutako.

Areatzan, barriz, 23an botako dabe txupina eta zortzi egunetan zehar ekintzaz beteko dira kaleak. Dana dala, musikea izango da protagonista eta estilo eta joteko modu ugari entzuteko eta jantzatzeko aukerea egongo da: batukadea, tanborradea, rock kontzertuak, txistulariak, gaiteroak, Areatzako Banda... Kuadrillak euren arteko Olinpiadak egingo ditue eta kirola eta lehiaketa gastronomikoak be ez dira faltauko.

Zeberion, abuztuaren 31n botako dabe txupina, baina 26tik aurrera hainbat ekintza antolatu ditue. 5. eta 7. orrialdeak



### ARRATIA

## Auzo eta ermita inguruetan jaiak abuztu osoan

Dimako Artaun auzuneko San Bizente jaiak, Zeberioko sanadrianak Argiñao auzunean, eta Zeanuriko Otzerimendiko sanjustoak dira oingo hileko lehenengo jaiak.

Hilaren 10ean, San Lorentzo jaiak edo sanlontxoak Bediako Murtatzen, Lemoako Azurrekan eta Zeberioko Elizondon ospatuko dabez.

Hilaren erdian, andramariak Igorren eta Zeberioan. Hurrengo eguna be, San Roke hain zuzen, jai eguna da leku askotan: Dimako Olazabal auzunean eta Bediako San Roke ermitan, esate baterako.

Sanbartolomeak, hilaren 24an, Igorreko Urkizun eta Zeberioko Urizarren ospatuko ditue. 13. orrialdea

### ARRATIA

## Via Campesina Arratian

Garagarrilaren 19tik 24ra Via Campesinaren VII. Nazinoarteko Konferentzia izan zan Derion. Han, 70 herrialdeko 450 nekazari alkarteko kideak -tartean, Igitie, Arratiako Baserritar Agroekologiko alkartekoak- politika publikoen eta merkaduen arteko hartu-emonak aztertu ebezan. Euretako batzuek, Zeberioko Maskilu konserba fabrikea, Arteako Herriko Benta eta Etxebarrie baserria bisitatu ebezan. Arratiako produktuak dastatu ebezan gero Igorreko Kiñu Gaztetxean egindako bazkarian. 8. eta 9. orrialdeak

### IGORRE

## Parkeetan aterpeak ipinteko proiektuak abiatu dauz Udalak

Hainbat plaza eta jolas parketan aterpeko espazioak sortzeako proiektua dauka Igorreko Udalak; Bide Barriko plazan, Olabarrin eta Lasarte parkean, barbarako. Aurreratuena Olabarrikoa da, estalkiaren kontratazioa aterata dago eta. Bide Barriko plazaren aurreproiektua eginda dago eta Lasarte Parkeko aterpearen diseinua herritarrekaz landu gura dabela azaldu dau Beinat Anzola Igorreko alkateak. 6. orrialdea



Areatzako jai zoriontsuak opa deusueguzi



Pedro Álvarez Blanco

NOTARIOA

Tel.: 94 673 92 26  
Añibarro parkea 3, Behea Faxa: 94 673 94 06  
48143 Areatza E-maila: areatzanotaria@gmail.com



# ARRATIA KOLOREETAN

## OLGETAKO LEKUAK

Jolasaren balio eta garrantzia sarritan aitatu dogu eta ez dogu errepetiduko, aspaldiko errebindikazioa da eta. Oingoan aire libreko olgetako espazioen inguruko hausnarketea dakargu espazio honetara. Zeintzuk dira olgetako eta gure aisialdiaz gozateko lekuak? Begiak itxi eta ia memorian zer topatzen dozuen: erreka bazterra, arboladun landea, aldatsak daukazan landea, kobazuloa, hatxak, lorez betetako landak, hareazkoak... Gaur egun herriguneetan patroi bardinakaz eregitako jolas parke asko ikusi geinkez, jolaserako beren-beregi sortuak diranak: arrisku mugatuak eta neurtuak daukiezanak, ISO

guztiak gaintzen dabezanak, baina emozino gitxi transmitiduten dabezanak. Arrisku handien prebentzioa eta ardurea helduona da bai, baina arrisku txikien aurkikuntza umeen esku itxi behar dogu.

Aire libreka kalidadezko espazioa da, espazio naturaletan jolasteak, osasuntsua izateaz gainera, balio pedagogiko zabala dauka. Modu independente eta irudimentsuan jarduteko aukerak sustatzen dauz, abenturarako sena biztu, motrizitatea hobetu... Ganera kalean personeren arteko alkarrekin eta batera olgetako aukerak bikoztu egiten dira eta gehienetan taldean ibiltzen

gara jolasean. Horregaitik, jolaserako aproposak izan leitekezan hainbat leku gogora ekarri eta berreskuratuteko momentua da.

Iniziatiba interesgarria abiatu dabe Txatxilipurdi aisialdi alkarrekoak eta beste hainbat eragilek eta bestelako jolas-parkeen Euskal Herriko gida interaktiboa sortu dabe. Helburua jolas espazio desbarden aukerea zabaldu eta bestelako eredu barri emotea izango litzateke. Euskal Herriko jolasguneen gida hurrengo helbidean topatu geinke sarean: [www.jolasparkeak.eus](http://www.jolasparkeak.eus).

Seguru aire librean dagozan eta olgetako itzelak diran hainbat leku daukaguzala Arratian. Proiektuagaz bat egin eta danon artean goazen mapea aberastuten. Guk egingo dogu gure hautaketea eta



bidaliko dogu baina Zastaparren aldetik konbite zuzena egiten dogu modu kolaboratiboan proiektu

honetan parte hartzeako! Animau zatezie!!

**Zastaparrak Asti Taldea**

TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**  
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**  
**09:00etatik 22:00etara**  
**Garagarriaren 31tik abuztuaren 6ra**  
Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

**22:00etatik 09:00etara**  
Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

**Abuztuaren 7tik 13ra**  
N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18

**22:00etatik 09:00etara**  
Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

**Abuztuaren 14tik 20ra**  
Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

**22:00etatik 09:00etara**  
Melero. Amorebieta-Etxano.

**Abuztuaren 21etik 27ra**  
Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50

**22:00etatik 09:00etara**  
Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

**Urte osoan**  
**22:00etatik 09:00etara**  
Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

**Medikuak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52  
**Bedia:** 94 631 34 13  
**Dima:** 94 631 56 30  
**Igorre:** 94 600 74 63  
**Lemoa:** 94 631 31 16  
**Ubide:** 945 45 03 61  
**Zeanuri:** 94 673 91 49  
**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 05  
**Areatza:** 94 673 90 10  
**Bedia:** 94 631 42 00  
**Dima:** 94 631 57 25  
**Igorre:** 94 631 53 84  
**Lemoa:** 94 631 30 05  
**Ubide:** 945 45 03 22  
**Zeanuri:** 94 673 91 46  
**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**  
94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**  
94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea** 94 673 92 79  
**Igorreko Kultur Etxea**  
94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**  
94 631 52 90

**Euskotren** 902 543 210  
**Areatzako Notarioritza**  
94 673 92 26

**Bizkaibus 94 612 55 55**  
**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**  
Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.  
Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.  
Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.  
Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.  
Orduro: 05:45etik 21:45era.  
Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.  
Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**  
Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino.  
Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**  
Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.  
Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**  
Ubideetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.  
Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.  
**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.  
Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**  
Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,  
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.  
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**  
Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.  
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**  
Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.  
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Ugao**  
Lanegun eta zapatuetan:  
Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.  
\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.  
Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio**  
Lanegun eta zapatuetan:  
Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30, 19:40.  
Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Ugao**  
Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00, 16:00.  
\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.  
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio-Artea**  
Lanegun eta zapatuetan:  
Ugaotik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.  
Basauritik (Ariz): 12:45.  
\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.  
Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ermitabarri-Arriorriaga**  
Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arriorriaga-Ermitabarri**  
Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.  
**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.  
**Telefona:** 94 631 73 14.  
**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)  
**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)  
**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga.  
**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 112.  
**Erredakzino taldea:** Rakek Aldekoa Diez.  
**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.  
**Publizitatea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 115.  
**Banaketea:** Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Emma Aguilar, Iker Perez eta Ismael Martínez (Igorre) eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).  
**Tiradea:** 7.000 ale.  
**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

**Babesleak:**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA      DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

**Bizkaia**  
 foru aldundia  
 diputación foral

## ZEURE BERBEA

### Dimoztarrok ebatzi dogu, benetan?

Azkenengo 6 hilabete honeetan Dimako plazeari buruz asko entzun dogu. Hau eraldatutako asmotan, urte hasieran, herrian inoz egin ez dan prozesu parte hartzaile bat jarri zan martxan. Honen helburua honako hau zan: gure herriko plazan geunkan arazoa zelari konpondu ebatzea. Baina ebatzi hau dimoztarrok hartu ete dogun zalantzatan nago.

Egia da Dimako plazatik pasetea asteko momentu batzuetan sano gatxa egiten dala, kotxeak plazan erdian aparkautu egoten diralako. Hau dala eta, danok gagoz egoera hau konpondutako gogoagaz, baina ez plazan kotxeak dagozan arazoak beste kale edo inguru batzuetara eroanez. Zergaitik ez da auzotarren eretxia kontuan hartu gura? Bidezkoa da batzuen desioagaitik besteengan eragiten diran eragozpen eta arriskuak kontuan ez izatea? Eta txarrena zera da, honeen gainean galdetu ezker, begiak zarratu, sorbaldea altxatu eta mutu geldituten dan bizilagun bat daukagula aurrean. Hain gatxa ete da beste lekuan ipintea?

Ekitaldi desbardinak egin dira,

baina ebatzia batzar bakar baten hartu zan. Momentu horretan 34 persona alkartu ginan, 1400 biztanle inguru daukazan herri batentzat kopuru hau esanguratsua da? Gainera, jentea ez zala hurreratu kejaru gara, baina pentsatu dogu zergaitik ez ziran etorri? Beharbada, dimoztarrok ez gagoz ohituta holangoetan parte hartzean, edo aukeratutako eguna eta ordua langile askorentzat ez zan aproposa, izan leiteke be, adineko jentek euren burua seguru ez ikustea holango prozesuetan. Batek daki!

Esandako guztia kontuan hartuta zera esan daiteke: Dimako plazea zarratutearen ebatzia hausnarketa sakon baten ostean hartu beharko litzateke eta ez edozein arrastitan talde txikitik egindako berbaldi baten ostean. Prozesu parte hartzaileak sano modan jarri dira eta herritar askori gustauko litxakigu horreetan jardutea, baina parte hartzaileen gehiengo txiki batek holan bozkatu arren, beste kalteetan doan edozein ebatzi ezin da ontzat hartu. Gogoratu, beraz, dimoztarrok ebatzi dogula esateko, danon berbea kontuan izan behar dala.

IRATXE AGIRRE GOIKOETXEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidua makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGIRUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Hodei



Euskal Herri gehiengan laino esangura adierazoteko erabilten bada be, Arratia inguruan hodei berbea zabal erabilten da durundu handiari esateko. Agoskatuta, odéye eta odáye entzuten dira. Batuan, trumoi da. Hodeiak jotzen dauanean, zera esaten dogu: "Badaragoio hodeiak" edo "Hodei-hotzen ostean, euria dakar sari". Hodeiagaz zerikusia daukien berbak batzuk, honeexek dira: hodei-tontor, hodei-bero, hodei-euri, hodei-haize, hodei-laino, hodei-zaparrada...

## ERETXIA

### Efemerideak

**P**asa dan garagarriaren 18an, lagun batek Espainiko ejerzitoaren barne boletinaren pantaila-argazki bat bialdu eustan. Bertan ipinten eban, 1936 urteko egun horretan, "altxamentu zibikomilitarra" egon zala. Haserretu egin nintzan, ze zuzena izango litzateke esatea 81 urte lehenago gertatu zana, estatu golpe bat izan zala, huts egindakoan, gerra zibila eragin ebala, gerra hau golpisten garaipenagaz amaitu zala eta lau hamarkadetak diktadurari emon eutsala bidea.

Aste batzuk lehenago beste efemeride baten lekuko izan ginan. Efemeride horrek Francoren heriotzaren osteko lehenengo hauteskundeak ekarri ebazan gogora. Hori zala eta, Espainiako Erregeak erabili eban lehen aldiz diktadurea berbea, sasoi horren gainean berba egiteko. Ordura arte beste mila modutan baina inoz be ez bere izenagaz, izentatzen eben. Zoritxarrez, ez zan ausartu beste pausu bat gehiago emotera eta bere diskursoan frankismoaren biktimak edo diktaduraren kontra burrukan egin ebenak sartuten. Kontrara. "Estaduarien demokratizazioaren alde egindako ekarpenakaitik" Martin Villa moduko personak kondekoratu ebazan. Martin Villa atxilotzeko nazinoarteko agindua dago Gasteizko martiaren 3ko masakreagaitik.

Eta justiziak atzetik daukan persona batetatik, justizia eske dabilen beste persona batera, Ascensión Mendieta. Burruka urte luze askoren ondoren, Ascensionek bere aitaren gorpuzkia erreperau ahal izan eban beste 24 fusilagaz batera egoan hilobitit, modu duinean lurperatzeko. Aste batzuk beranduago, lurretik aitarren hazurrak ateratzeko baimenak ukatzen eutsasan udaletxeak dirua eskatu eutsan ARMHko (Asociacion para la Recuperacion de la Memoria Historica) bolondresen lanak pagetako eta norvegiar elektrikari sindikatu bat finantzietako. Lurpetik ateratzegaitik fusilau



### MIKEL DIEGO

Historialaria eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea

baten alabeari dirua eskatzen deus bitartean, Espainako gobernuak Diktadorearen hilobiko lorak pagetan dauz.

Zorionez Euskal Herrian egoera desbardina da, erakundeen babes handiagoa daukagu eta herritarrak be interes handia daukie Memoria Historikoa berreskuratzeko. 2017 efemeride urte honetan, Bizkaian gerrearen 80. urteurrenean, memorialistak izan gara. Ikusi doguz bonbardaketetan hildakoi omenaldiak, sinbolo frankistak kendu dituela, gerraren gaineko erakusketak, desagertutako batzuk lurpetik atera dituela edo Durango bonbardeau ebenean abidoreen kontrako kereilea.

Dana dala, eta Memoria Historikoa errekuperetako egoera hobean egon arren, adi egon behar gara eta beharrez jarraitu behar dogu oindino lortu ez doguna lortzeako. Oindino ez dakigu herritar askori gertatutakoaren egia historikoa, oindino ez dakigu non dagozan desagertu asko, oindino eskubideak urratu eutseenentzako justizia falta da, baita persona horreenganako erreparazio ekintzak be, gerrako auzitegi frankisten epaiak baliobakotzea, esate baterako. Horregaitik, bakotzak ahal dauan neurrian, Memoria Historikoa berreskuratzeko lan hain demokratikoan parte hartu behar dau. Holan bakarrik lortuko dogu Memoria Historikoa efemeride hutsa ez bihurtzea eta.

\* *Erredakzioan itzulia*

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torre Auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

**IZAN GINAN...**

**...BAGARA ETA IZANGO GARA**

Erretakzioan itzulia

MONDRAGON



## LUMATUTEN

SARA GUTIERREZ  
EGILIORKatalanakanako  
mirespena!

**K**ataluniako gizarteaz pentsetan dodanean burura jotortan lehen berbea mirespena da.

Batez be azken asteotan goi mailako kargu batzuen aldetik entzuten gabizen komentarioak, mehatxuak (ekonomikoak eta penalak), bildurra eta abarren aurrean, gizarteak martxan jarri dauan bidea holango determinazioagaz aurrera eroatea, gizarte heldu batek bakarrik egin leike!

Uste dot, oso gizarte argia, heldua eta konsekuentea dala Kataluniakoa.

Vic inguruan bizi diran lagunak daukadaz, ez dira inoz politika zaleak izan, ezta bereziki alderdi bateri lotutako jentea, eta normaltasun osoz argudiatzen dabe eskubide osoa daukiela erreferenduma egiteko jentek bere eretxia emon dagian. Konbenziduta dagoz eskubide demokratiko hori aurrera eroan

gura dabela eta egingo dabela, beste barik.

Bere egunean zezenen inguruko debatea zabaldu ebenean, zezenketak debekatu ebezan, hemen be ausardiaz eta tinko, nahiz eta gero Auzitegi Konstituzionalak debekua altxau.

Beraz, Kataluniako gizarteak helburu bat marketan dauanean, gai da ausardi osoz aurrera eroateko eta gauzatzeko. Animo eta zorionak!

## ZERTZEAN



LEIRE AGINAGA ETXEBARRIA

## Noizbait norbait

**N**oizbait norbait arduratu izan balitz besarkaden epeltasuna gordetzeaz muxu goxoan zapore garratza behin eta berriro dastatzeaz agurren malko gezak garaiz botatzeaz.

Noizbait norbait arduratu izan balitz etsipenezko garraxi mutuak entzuteaz, Whiskey botiletan itotako sekretuak oihukatzeaz, irribarren gatibu diren hitz xumeak xuxurlatzeaz.

Noizbait norbait arduratu izan balitz une haiek berriz bizitzeko ilargira kateatzeaz, usainak azaletan iltzatzeaz.

Noizbait norbait arduratu izan balitz kimerak fikziotik urruntzeaz, barruko tximeletei askatasuna opatzeaz, geure buruez gozatzeaz.

Noizbait norbait arduratu izan balitz koloreek pertsonak ez bazterteaz, denon artean erromako zubi bat osatzeaz, harresi eta barroteak maitasunez suntsitzeaz, irriek munduari buelta emateaz.

Noizbait norbait arduratu izan balitz ahantziak izateari izua galtzeaz, aterki azpiko koreografiaren konpasa jarraitzeaz, itsasontziei portura sartzean erreparatzeaz, komunetako artea baloratzeaz.

Noizbait norbait arduratu izan balitz minigonen luzerari garrantzirik ez emateaz, zure lepoko azken txokoak dastatzeaz, maiteMINTzeari uzteaz, gauerdiko sorginen uluak laztantzeaz.

Noizbait norbait, ixilik nahi gintuztenean, hitz egiten hasteaz arduratu zen.

## BEGI TXINDORRA

**H**egazkinetik ateratako argazki hau bialdu deusku Mau Ziemkiewicz. Paisaje abstraktu eta oniriko honek, izan badirala beste mundu batzuk, baina honetan dagozala esaten deuskula dirudi, errealdadeak imajinazioa gaintitzen dauala behin eta barriro.

BEGITUKO Argazki Lehiaketan parte hartzeako begitu@topagunea.com helbidera bialdu behar dira argazkiak urri lehenengoaren 25a baino lehenago. Irabazleak bi personentzako astegoi bat landetxe baten izango dau saritzat. Gehienez hiru argazki bialdu ahal ditu partaide bakotzak, argazkia non, noz eta nok aterata dagoan esanda.

Animau eta konpartidu geugaz zuon oporretako irudirik ederrenak.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarroa

Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalejatu Zerbait 101  
R.P.S. 21/06

**Beer & Edariak s.l.**

HEINEKEN SOLARES

Polig. Mendaketa, n.º 3. 48550 IZEMOIA, Bizkaia  
Tel: 000-481839 eta 000-200717

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

## ZEANURI

# Andramarietarako prest zeanuriztarrak

Tradizinoa da Zeanurin Andra Mari jaiak herriko txistulari eta trikitilariakaz batera hiru zubiak kalejiran igaroz hastea eta amaitutea. Eta aurten be tradizinoari ertsiko deustie jai hasikeran, amaieran eta jai egunetako goizetan be.

### Erredakzioa

Herriko txistulari eta trikitilariak gainera, kuadrillak be protagonismo handia izango dabe eta txupina bota bezain laster hasiko dira kuadrillen arteko probak. Kuadrillak Futbol Txapelketan eta "Landa errea" jokoan be neurtuko dira.

Akerbeltz, Ingo al deu, Oxabi eta Orots taldeak animauko dabez gauak. Zapatuan, Uckaia eta Skakeitan taldeen kontzertuak egongo dira.

Zeani Antzerki Taldeak, Txano Gorritxo gizajatzko lanaren aurkezpena egingo dau domekan.

Zapatutik (12) domekara (13) doan gaubean etxera bueltetako autobusak 02:30etan eta 05:00etan izango dira, eta Arratia, Galdakao eta Zornotzatik pasauko dira.

### Abuztuak 12, zapatua Gazteen gaua

19:00etan, txupinazoa eta hiru zubiak herriko txistulari eta trikitilariakaz. Jarraian kuadrillen arteko pro-

bak herriko trikitilarien laguntzeagaz. 23:00etan, Uckaia eta Skakeitan taldeen kontzertuak. Ondoren erromeria Akerbeltz taldeagaz.

### Abuztuak 13, domekea

17:30etan, pala partiduak frontoian. 19:30etan, kuadrillen arteko II. Futbol Txapelketako finala Zulaibarrekoko zelaian.

22:30etan, Zeani Antzerki Taldearen emonaldia. Txano Gorritxo gizajatzko lanaren aurkezpena.

### Abuztuak 14, astelehena Umeen Eguna

08:00etan, Gorbeira igoerea eta Arraban armozua.

11:00etan, hiru zubiak herriko txistulariakaz.

11:00etatik 14:00etara, umeen jolas parkea.

17:30etan, kuadrillen arteko "Landa Errea" Txapelketea.

18:30etan, pelota partiduak plazako frontoian.

22:30etan, play-backa.

Jarraian Ingo al deu-gaz erromeria.

### Abuztuak 15, martitzena Andra Mari Eguna

11:00etan, hiru zubiak herriko txis-

tulari eta trikitilariakaz.

11:30etan, meza nagusia. Ondoren herriko txistulari eta trikitilariak musikaz girotuko dabez herriko plaza eta tabernak.

18:00etan, Trikitilari Gazteen Euskadiko XXXVII. Txapelketea.

20:00etan, mozerro desfilea eta kuadrillen arteko jokoak.

22:30etan, Txoborro magoa.

Jarraian Oxabi taldeagaz erromeria.

### Abuztuak 16, eguaztena San Roke Eguna

11:00etan, hiru zubiak herriko txistulariakaz eta sukaldari egunari

hasikerea: izen emotea.

11:30etan, meza nagusia.

12:30etan, herriko jubiladuen kopaua.

13:45etan, Tortilla, Paella eta Postre aurkezpena.

14:30etan, herri bazkaria plazan.

17:00etan, Zeanuriko II. Mus eta Briska Txapelketea. Izena plazan bertan emon 16:30ak baino lehenago.

19:00etan, erromeria Orots taldeagaz eta Jantza Txapelketea.

22:00etan, txokolatea danontzat.

22:30etan, hiru zubiak herriko txistulari eta trikitilariakaz. Jaien amaiera.



Argazkia: Miren Idigoras.

## IGORRE

# Altsasun gertatutakoa terrorismotzat hartzearen kontra agertu zan Udala

### Erredakzioa

Garagarriaren 17an egindako osoko bilkuran, Igorreko udalbatza osoa Altsasun urriaren 15ean gertatutakoa terrorismotzat kalifiketearen kontra agertu zan eta hurrengo puntuak hartzean ebazan adierazpena berretsiz eban: "Igorreko Udalak erabateko desadostasuna adierazo dau Fiskalaren zigor eskaeren aurrean, eta kezka handia adierazo dau gertaeren bilakaereagaitik, kasua neurribakokeria eta bidebakokeria onartezin batera heldu dala ikusita".

Konpromiso irmoa be adierazo

eban Udalak "alkarbizitzagazko, justiziagazko eta persona guztien giza eskubideen errespetuagazko" eta Nafarroako Probintzia Auzitegiaren motibazioa babestu eban terrorismotzat kalifiketako zantzurik ez dagoala dinoanean, eta, beraz, berretsiz eban Altsasun gertatutakoak "egitateen izapideak egiteko eta epaitzeko eskumenak Iruñeko epaitegiaren izan behar leukela".

Dimako Udalak be terrorismotzat hartzearen kontrako adierazpena onartu eban. Arteko Udalak oin dala hile batzuk egin eban adierazpen instituzionala.

## BEDIA

# Bizitza galdu eban langile batek Forjas Unidas enpresako lan-istripuan



Enpresa aurrean egindako konzentrazioa.

Garagarriaren 3an, Murtatzen (Bedia) dagoan Forjas Unidas Vascas enpresan izandako lan-istripuan langile bat hil zan.

### Erredakzioa

Euskal Herrian 2017an lan-istripuan hildako 33.a izan zan, Euskadiko 28.a, LAB eta ELA sindikatuen datuen arabera, hurrengo hurrengo. Egun berean beste

lan-istripu bat egon zan Azpeitian eta beste bi gehiago astean zehar. Garagarriaren 12an, ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE eta HIRU sindikatuen ordezkariak, Eusko Jaurilaritzen egoitzaren aurrean konzentrau ziran, lan-istripu ko-

purua handitzen dagoala salatu teko. Bediako Udalak doluminak agertu eutsezan senideai, lagunai, lankideai eta bera kide zan ELA sindikatuari.

Eguerdiko 12:30etan izan zan Bediako ezbeharrak. Beharginak golpe bat jaso eban buruan eta garezurreko traumatismoa izan eban. Bertaraino Osakidetzako helikopteroa heldu zan arren, medikuak ezin izan eban bere bizitza salbau.

Administrazioari lan-istripuak ikertzeko eskatu deustie sindikatuok.

### Arazo estrukturala

Garagarriaren 12ko alkarretartzean, Txiki Muñoz ELAko Idazkari Nagusiak, "dirua kostatzen dauala eta prebentzioa alde batera ixten dauan lan eredu batek" eragindakoak dirala eta gobernuak eta patronalak ez daukiela kausa estrukturalak kentzeako asmorik esan eban. Muñozen arabera, "lan eritmo gogorak, prekariedadeak eta lan baldintza txarrak" egoten dira lan-istripuen atzean.

LAB sindikatuak be lan-istripuen izakera estrukturala azpimarratu eban Bediako langilearen heriotzearen egunean egindako komunikaduan. "Istripuak ez dira gertatzen errazoi puntual edo kointuralakaitik. Oinarrizko arazo bat daukagu, arazo estrukturala; eredu da arazo, langileon bizitza eta osasuna kolokan ipinten dauan eredu, bizitza galtzearen".

**Zeanuri**



**Jai batzordeak eta Zeanuriko Udalak**

**Gora Andra Mariak!**

**JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ**



## ARRATIA

**Errota Arratiako garapen sozioekonomikorako Fundazioa sortu da****Erredakzioa**

eta lanaren ondoren, Errotariok Elkartea 2016ko abenduan sortu zan. Hau izan zan irabazi-asmorik bako fundazioa sortzeako lehen pausua. "Bagilaren 29tik, Errota Fundazioa errealidade bihurtu da. Hemendik eta bi urteko epean kide gehiago sartzeako aukerea dago, fundazioaren patronatua finkatua geratu arte" azaldu deuto BEGITURI Iratxe Goikoetxea koordinatzaileak.

**Hezkuntza mahaia eta enpresa mahaia**

2017rako lau erronka definitu ebezan alkartekoak. Horreatariko bat fundazioa sortzea zan. Udako oporren ostean, hezkuntza mahaia eta enpresa mahaia eratzeko lanari ekingo deutesie. Laugarren erronkea proiektu bi garatutea da, "Errotak bere gain hartutako erronkakaz bat datozen eta sektoreen arteko lankidetzaz bultzatzen daben proiektu bi garatzea" hain zuzen be.

Urte bi eta erdi beharrean dabilen arren, bagilaren 29an eskriturak sinatu eta modu ofizialean sortu zan Errota Arratiako Garapen Sozioekonomikorako Fundazioa. Lau sortzaileren babesagaz jai zan: BATZ, S. Coop.; Ilunbe, S.A.; Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia, eta Errotariok Elkartearen babesagaz, hain zuzen be.

Jente askoren parte-hartze

## IGORRE

**Igorreko Udalak hainbat plaza eta jolas parke estaltzeko proiektua dauka**

**Hainbat plaza eta jolas parketan aterpeko espazioak sortu gura ditu Udalak.**

**Erredakzioa**

Proiektua gauzatzeko urteak behar izango dira, eta hasikera baten, Bide Barriko plaza, Olabarrin

Institututik hur dagoan parkea eta Lasarte parkea aztertu ditue aterpeko ipinteko. Helburua espazio desbardinak sortzea da. Hori dala eta, estalitako espazio bat zoru



**Olabarrin proiektua.**

gogor eta umeentzako jolasakaz jantziko dabe, beste bat pikor motako baldosak dituan jolas parkea izango da, eta Lasarte parkean, ekintza desbardinak egiteko erabilera anitzeko azalera ipinteko asmoa agertu dau Udalak.

Proiektu baxotxa fase desbardinetan dago, batzuk aurreratuago dagoz beste batzuk baino. Aurreratuena Olabarrin da. Izan be, parkearen estalkiaren kontratazioa aterata dago 104.328 eurotan eta 21.780 euroko aurrekontua dauka ekipetako. Bide Barriko plaza estaltzeko proiektuari jagoonean, aurreproiektua eginda dago baina azalera handiagoa izango dau estalita, eta ejekuzino proiektua egin barik dago oindino.

**Lasarte parkekoaren diseinua herritarren parte-hartzeagaz**

Lasarte parkean, Kultur Etxearen beste aldeko parkean, azokak, berbaldiak, hileta zibilak, erakusketak, herri bazkariak eta abar antolatzeke espazio bat eregiteko asmoa dauka Igorreko Udalak. "Idea batzuk daukaguzan arren, herritarrekaz landu beharreko gaia da eta kokapen zehatza eta diseinua herritarren parte hartzegaz ebatzea da asmoa" azaldu dau Beinat Anzola Igorreko alkateak.

## ARRATIA

**Turismoa bultzatzeko lankidetzaz-hitzarmena****Erredakzioa**

Gorbeia zonaldean turismoaren garapena eta promozioa landuteko helburuagaz, Gorbeialde Landa Garapen Elkartek (Gorbeialde LGE) eta Gorbeialdeko Kuadrillak euren arteko lankidetzaz-hitzarmena sinatu dabe.

Erakunde publiko biak, 2010ean, Gorbeia inguruan turismoa bultzatzeko, Gorbeia Gune Turistikoa sortu eben, eta 7 urteotan hainbat proiektu ipini dabe martxan: Gorbeia Central Park proiektua, 2012ko FITUR saria jaso ebana, edota Gorbeia Esperientzia izenpean, "Erlezain Egun Batez" eta "G-astronomia" lango dozena bat proiektu, esate baterako.

Gorbeia Gune Turistikoaren



barruan, Gorbeialde LGEaren barruan dagozan eta LGEren turismo-ekintzetan parte hartzea ebatzi daben udalerriak dagoz: Arantzazu, Orozko, Otxandio, Ubide, Zeanuri eta Zeberio, hain zuzen be, ipar isurialdean. Baita, hegoaldeko isuriko Gorbeialdeko Kuadrillako udalerri guztiak be: Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia.

## LEMOA

**Eskola aurreko kalea norabide bakarrekora orain****Erredakzioa**

Lemoako Udalak udako oporrak aprobetxau ditu Lehendakari Agirre estazinoko errotondatik Tallerretara doan bidea norabide bakarrekora egiteko, ago batez onartutako 2015eko Mugikortasun Planean ipinten eban moduan. Horretarako piboteak eta seinaleak jarri ditue. Honen helburua, eskola inguru leku seguruago eta irisgarriagoa egitea eta aparkatze irregularrak ekiditea da. Baita, eskola, kiroldegi eta udako igerilekuak osotuten daben eremura oinez lasai joan ahal izatea eta CO<sub>2</sub> isurketak murrizten lagundutea.

Garagarrilaren amaieratik, Lehendakari Agirre kalea norabide

bakarrekora da Estazinoko errotondatik Tallerretarako errotondatik Tallerretarako norabidea dauka eta errail bakarretik joan behar da, eskoieko errailetik hain zuzen. Ezkerreko erraila itxita geratu da, oinezkoen zein motore bako garraioentzako espazio moduan. Eskola inguruan, parking plaza barriak dagoz, eskolako aparkalekuan egozanai gehitu diranak.

**Eskola aurreko egoera "jasangatxa"**

Ikasturte barruan eta batez be ordu jakin batzuetan, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxearen inguruko trafikokoak eta aparkatze "irregularrak", egoera "jasangatxa" bihurtu eben, Udalaren arabera. Lemoako Mugikortasun Planak eskola in-



guru Intzuntzagaz batera esku hartzeko inguru moduan markeztan dau, eta Udalak eskolako opor sasoia jo dau egokiena aldatetok egiteko.

Aldaketa honek herritarri onurak ekarten deutesean balorauko dau Udalak. "Mugikortasun Plana 2015ean aho batez onartu eban udalbatzak eta aktuazino hau bertan batuta dago. Piboteak eta seinaleak jarriko doguz eta hurrengo hiletan ikusiko dogu txostenean jarten dana errealidadean, egunerokotasunean, funtzionala dan ala ez. Horregaitik Mugikortasun Plana aplikatzean ez da komenigarria jarraian obra zibila egitea, horrela egin ezkerero ezin da desegin eta" azaldu deuto BEGITURI Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak.

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizarrak egin eta bizkunduten dogu.  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**ZEKUTZE**  
JATEETXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel: 94 631 52 83  
zekutzejateetxea@hotmail.com

**NAIARA HORTZ KLINIKA**  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
Tel. 94 631 52 26



## AREATZA

# Kalejira ugari buruhandiakaz sanbartolomeetan

Zortzi egun eta zazpi gau hartzean ditu Areatzako jaietako egitarauak. Bertan, musikeak dauka protagonismo nagusia; txistulariak, batukadeak, tanborradeak, Bandak, mariatxiak, txarangeak, erromeriak eta kontzertuak girotuko dabez kaleak jaietan. Ez da faltauko azken urte honeetan sano arrakastatsua izan dan bertso saioa, balkoitik balkoira modalidadean. Aurten, Andoni Egaña, Arkaitz Estiballes eta Oihana Iguaranek botako dabez bertsoak.



sak 02:30ean eta 05:00etan izango dira, eta Arratia, Galdakao eta Zornotzatik pasauko dira.

### Abuztuak 23, eguaztena

**14:00**etan, txupinazoa. Areatzako Txotxongilo, Erraldoi eta Buruhandiak, Areatzako Txistulariak, Areatzako Banda eta Bizkaiko Gaiteroak. Kontzertu txikia Aldamin taberna ondoan: Txistulariak eta Eskean Kristöko Peio eta Alex.

**17:00**etan, Areatzako BatucAKKB batukada taldea.

**20:00**etan, Salbe herrikoa. Hilarion Eslavaren *Salve Regina*. Areatza eta beste herrietako lagun taldea.

**20:00**etan, Txapito Guzman & Ibarako Langostinuek taldearen kontzertua plazan.

**23:30**etan, XXIV. Play-back Lehiaketea. Ostean erromeria Akerbeltz-egaz.

### Abuztuak 24, eguena

**06:00**etan, mortero jaurtiketea.

**11:00**etan, txistu eta metalezko musika tresnen kalejireia. Buruhandiak.

**11:30**etan, meza nagusia.

**12:15**etan, txistu eta metalezko musika tresnen kalejireia. Buruhandiak.

**12:30**etan, bertsolariak balkoitik balkoira. Andoni Egaña, Arkaitz Estiballes eta Oihana Iguaran.

**13:30**etan, kalejireia Areatzako trikitilariakaz.

**18:00**etan, eskupeleta partiduak.

**22:00**etan, Kherau taldearen kontzertua Zubizarra plazatxoan.

**00:00**etan, txokolatada.

### Abuztuak 25, barikua

**11:00**etan, puzgarriak plazan.

**11:30**etan, arimen aldeko mezea.

**13:30**etan, Makailao Txapelketea (aurkezpena).

**18:00**etan, Kuadrillen arteko Olinpiadak.

**20:00**etan, Burrumba Elektrotxarangea.

**22:30**etan, kontzertuak: Skasti eta Itziarren Semeak. Jarraian Disk Breakers.

### Abuztuak 26, zapatua

**11:00**etan, umeentzako herri kirol tailerra plazan.

**12:00**etan, umeentzako kopaua plazan.

**18:00**etan, Danborrada Txikiaren kalejireia.

**22:30**etan, kuadrillen kalejireia eta suak. Areatzako kuadrillak, Areatzako Danborrada, Deabru Beltzak taldearen *Su á Feu* ikuskizuna, Pasai Txarangea eta su artifizialak.

**00:00**etan, erromeria Oxabi-gaz.

**02:00**etan, Areatzako Danborrada-ren kalejireia.

### Abuztuak 27, domekea

**11:30**etan, Xake Partida Azkarren Txapelketea plazan. Izen emotea 11:00etan.

**12:30**etan, kalejireia Areatzako trikitilariakaz. Buruhandiak.

**13:30**etan, Pintxo Lehiaketea Areatzako Tabernari Elkarteak antolatuta.

**18:00**etan, eskupeleta partiduak.

**21:30**etan, Areatzako Banda eta Serafin Zubiriren kontzertua *Recordando a Nino Bravo*.

### Abuztuak 28, astelehena

**11:30**etan, ur ginkanea. (Bainujan-tzia ekarri).

**12:00**etan, bitsaren Jaia.

**16:00**etan, Mus Txapelketea.

**17:00**etan, zunbatoia.

**19:00**etan, Kolore Bonba Jaia. (Erropa zaharrakaz joatea kome-nidu da).

### Abuztuak 29, martitzena

**13:30**etan, Paella Txapelketea (aurkezpena).

**13:30**etan, hirugarren adinekoentzako kopaua.

**14:00**etan, Humberto Mariatxia.

**16:00**etan, Briska Txapelketea.

**18:00**etan, umeen play-backa.

**20:00**etan, txokolatea txurroakaz hirugarren adinekoentzat.

**22:00**etan, kontzertuak: Uckaia eta Radiocrimen. Jarraian DJ Bull.

### Abuztuak 30, eguaztena

**10:00**etan, mendi ibilbidea plazatik urtenda.

**16:00**etan, Tute Txapelketea.

**20:00**etan, Tortilla Txapelketea (aurkezpena).

**21:30**etan, afari herrikoa.

**23:00**etan, jaien agurra eta azken txupina.

## ZEBERIO

# Sandoniai hasikerea emoteko txupinazoa hilaren 31n izango da

### Erredakzioa

Jaietako egun handia urri lehenengoaren 2a izan arren, zeberioztarrak motorrak berotuten abuztuaren 26an hasiko dira eta txupinazoa hilaren 31n botako dabe. Umeentzako ekintza ugari prestatu dabez: jolasak, zirku tailerra, bits jaia, Pirritx Porrotx eta Marimotots pailazoak, Txu-txu tren... gazteentzat kirola eta kontzertuak, eta edadekoentzat txapelketak eta bazkaria, batez be.

### Abuztuak 26, zapatua

**11:00**etan, Asel Ozerinjuregi XXIII. Memoriale Txirindulari Lasterketea.

### Abuztuak 28, astelehena

**17:30**etan, jolasak Gaztelekuan.

### Abuztuak 29, martitzena

**17:30**etan, umeen jolasak plazan.

### Abuztuak 30, eguaztena

**17:30**etan, Zirkun Zirkoren zirku tailerra kalean 7 urtetik gorakoentzat.

**19:00**etan, bits Jaia.

### Abuztuak 31, eguena

**19:00**etan, txupinazoa Txubel eta buruhandiakaz. Ponpak. Animazioa herriko trikitilari gazteakaz.

**19:30**etan, umeen Jolasak.

**21:30**etan, herri afaria, txahal errea. Ostean: EinGo Kantan eta Dantzan taldea.

### Urri lehenengoak 1, barikua

**11:30**etik **14:30**era, umeen Parkea. Puzgarriak.

**13:00**etatik **15:00**etara, kalejireia herriko trikitilari gazteakaz.

**18:00**etan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en *Tipi-tapa Korrika* ikuskizuna.

**19:30**etan, Elektro Txufla bandea.

**23:00**etan, erromeria: zeltiar musikea, Jonnytxar eta Euskelga.

### Urri lehenengoak 2, zapatua

**11:30**etan, txirindulari martxea umeentzat. Ermitabarri-Ugao-Zeberioko

plaza. Alkartzeko eta ibilbide osoa egiteko Ermitabarrin 11:30ean, edo Ugaon 12:00etan. Aukerea dago edozein lekutan txirindulari martxan sartzeako. Derrigorrezkoa da kaskoa eroatea. Txu-txu tren ibilbide osoan.

**11:30**etan, Txu-txu tren.

**12:30**etan, mezea.

**13:00**etan, kalejireia herriko trikitilari gazteakaz.

**13:15**etan, barauskarria.

**14:00**etan, Makailao, Patata Tortilla eta Paella Txapelketak.

**18:00**etan, Helduen Olinpiadak.

**18:00**etan, fanfarria.

**21:00**etan, play-backa. Ostean, karrakea.

**23:00**etan, kontzertuak: HdH Rock taldea, Akabu eta En Tol Sarmiento. Autobusa egongo da.

### Urri lehenengoak 3, domekea

**12:00**etan, herri kirolak. Aizkolariak: Aritz Irazabal, Irati Astondoa eta Jon Irazu.

**12:00**etan, kalejireia txistulariakaz.

**13:00**etan, Laura Orueren aldeko XVIII. urteurreneko mezea.

**13:30**etan, Etorri Dantza Taldea.

**15:00**etan, jubiladuen bazkaria.

**17:00**etan, herriko jubiladuen Mus, Tute eta Briska Txapelketak.

**18:30**etan, Zeberio eta inguruko Pelotari Gazteen Txapelketea.

**20:30**etan, Zeani Antzerki Taldearen *Txano Gorritxo gizajaxko* ikuskizuna.

### Urri lehenengoak 4, astelehena

**12:00**etan, Gozatzera. Egurrezko jolasak ume eta helduentzat.

**13:00**etan, poteoa Koldo eta Unai trikitilariakaz.

**15:00**etan, indababak lagun artean.

**18:30**etan, eskupeleta partiduak. Larrabetzuko neskak: Fonseca/Goiri-Zubiur/Iturbide; 19:15ean, Kade-teak: Arandia/Larrazabal-Ballarena/Alberdi; 20:00etan, Seniorrak: Etxebarria/Alberdi-Zezeaga/Guerrero.

**19:00**etan, guatekea. Disko festa, 80-90 hamarkada.

### Erredakzioa

Txapito Guzman & Ibarako Langostinuek, Kherau, Skasti, Itziarren Semeak, Uckaia eta Radiocrimen taldeen kontzertuak izango dira gauetan. Domekan, hilak 27, Serafin Zubirik Nino Bravo ekarriko dau gogora, Areatzako Bandagaz emongo dauan kontzertuan.

Txupinazoa Areatzako txistulariak botako dabe.

Abuztuaren 25ean, barikua, 22:30etik aurrera konsumo arris-kutsuen murrizketarako sensibilizazio stand ipiniko da plazan, eta barikutik (25) zapatua (26) doan gaubean etxera bueltetako autobu-

**Jai batzordeak eta Areatzako Udalak jai zoriontsuak opa deutsuez**

**Ondo pasau jaietan!**

**Zeberio Udalak jai zoriontsuak opa deutsuez**

**Ondo Pasau Sandonitan!**



**VIA CAMPESINA**

# Via Campesinaren ordezkariak batek Arratia bisitatu dau

Garagarrilaren 24an, mundu zabaleko Via Campesinaren berrogei ordezkari inguruk, Arratia bisitatu eban Igitiek konbidata, bertako baserri eta egitasmo adierazgarri batzuk ezetuteko. Holan, Maskilu konserbarea, Arteako Herriko Benta eta Etxebarrie baserrian abiatu dabezan elikadura burujabetza eta agroekologiagaz konprometidutako proiektuen barri jakin eban Europa, Asia eta Ameriketako Via Campesinako nekazariak. Eta produktuok dastatzeko aukerea be izan eban Igorreko Kiñu Gaztetxean.

**Erredakzioa**

Izan be, Via Campesinaren VII. Nazinoarteko Konferentzia Derion izan zan, EHNE Bizkaiak antolatuta, garagarrilaren 19tik 24ra. Mundu mailako nekazal mobimetu hau Mons-en (Belgika) sortu zan 1993an eta lau kontinenteetako 200 miloe laborari baino gehiago ordezkatzan ditu, nekazaritza iraunkorraren eta elikadura eredu jasangarri eta arduratsu baten defentsan. Lau urterik behin mundu mailako bilera egiten dabe eta aurten, Derion izan da. Han, 70 herrialdeetako 450 nekazari alkarteak -tartean, Igitie, Arratiako Baserriar Agroekologiko alkarteok- politika publikoen eta merkaduen arteko hartu-emonak aztertu ebezan beste gai batzuen artean, eta Bizkaiko eta Nafarroako ustiapenak bisitatu. Bizkaiko ustiapenen artean, Arratiakoak egon ziran.

**Maskilu, politika publikoen beharra**

Hamarrak jota heldu zan Via Campesinako kideen autobusa Zeberiora. Maskilu konserberearen kudeaketeaz arduratzen diran Mar Garrote eta Nadia Ayuso zain egozan ekimen honen nondik norakoak azaldu eta itaunak erantzuteko. Konserbarea orain dala urte 2 sortu zan. Orduan Arratia-Nerbioiko hamabost produktore ekologiko inguruk Zeberioiko Udalaren laguntzeagaz, fruta eta barazki konserbak egiteko Maskilu ipini eban martxan. Ordurako urtebete erorien alkarlanean baserriarrek eta Udalak.

"Udalaren partaidetza funtsezkoa izan zan" azaldu eutsen Ayusok Via Campesinakoai; izan be, proiektua Zeberioiko Udalak bultzatutako Nekazalgunea programearen barruan egoan. Programa honegaz, besteak beste, Udalak lurrak eta konserbarea egiteko eraikina baldintza ekonomiko egokietan ipini ebezan baserriar gazte talde baten eskura. Lur Funtsa be sortu eban, eta lur jabe eta



Etxebarrie baserriko produktuak.

lurrak landu gura ebezan artean bitartekari lanak egin ebezan, baserriarrentzako hamar urterako alokairu merkeak lortuz. Udalak diru partida bat be ipini eban Maskilun sukalde egiteko, Europako diruagaz. Barruko obrak bazkideak egin ebezan, osasun araudiari jarraituz, eta makineria erosteko diru crowdfunding kanpaina baten bitartez lortu eban.

Mar Garroteren ustez, Maskiluren berezitasuna, talde baten konserbarea izatea da. Gainera ez da bere horretan agortzen dan proiektua, beste proiektu batzuentzako erremintea baino. Momentu honetan, ortu ertainak landuten dabezan 11 ekoizle dira Maskiluko bazkide. Ekoizle bakotzak eroaten dau bere produktua, berak egiten ditu bere konserbak, eta banaketaz arduratzen da. Taldekoak errezetak konpartiduten dabez. Bazkide ez diran baserriarrai be, konserbak egiteko zerbitzua eskaintzen deutsee Maskilukoak diru baten truke.

Proiektua aurrera ateratea ez da gauza erreza. Legeak eta araudia fabrika handientzako perspektiba industrial batetik eginda dagoz eta kantidade txikiak egiteko makineria topatzea gatazka izan da. Europako etiketatze araudi barriak be gastuak ekarri dauz. Izan be, nutrizio taulak ipintea derrigorrezkoa da. Horrek laborategi gastuak dakar eta ekoizle txiki batek ezin ditu pagau. Gainera, "hemen ez

daukagu errezeta bakarra. Konserbak, daukagunaz egiten doguz, eta gertatu daiteke behin pistoak kalabazina eta berenjenea eukitea eta beste baten berenjearik ez eukitea ez dagoalako. Eta hori aldatutea garestia da" dino Garrotek. Horrerri danari aurre egiteko taldea izatearen garrantzia azpimarratu eban Maskilukoak.

Konserberearen osasun-erregistroari esker, merkadu zabalago batera heldu daitekez baserriar agroekologikoen produktuak. Dana dala, fabrika handientzako ez dirala konpetentzia esan eban Garrotek, prozesu osoa artisaua dalako. Eusko Jauraritzan, ekoizpen artisau eta ez industrialarentzako lege bat dago eztabaidan, araudiak holango proiektuak ito ez dagian.

Maskilu ezinezkoa litzatekela Udalaren laguntasun barik eta lehenengo sektoreko proiektuak aurrera aterateko politika publikoen garrantzia azpimarratu eban Nadia Ayusok.

**Arteako Herriko Benta, elikadura burujabetza eta mugaz gaindiko alkartasuna**

Zeberiotik Arteara 8 kilometro eskas dagoz. Belgika, Korea, Peru, Bolivia eta beste herrialde askotako nekazariak Arratiakoak batera, autobusean sartu eta herri bien arteko bidea egin eban, taberna, jatetxe, denda eta ostatua dan Arteako Herriko Bentaren lana eta filosofiaren barri jakiteko.

Trikitixa soinuakaz egin eutseen harrerea Herriko Benta Via Campesinakoai eta hamaiketako eskeini gero, giro alai eta solidarioan.

Arteako Herriko Benta Udalarena da. Orain dala urtebete inguru Malu Egiluzen proiektuak irabazi eban ostatua ustiatzeko Lehiaketa Publikoa. Malu Egiluz EHNEko ekoizle kidea da eta Via Campesinako VII. Konferentzian, andren asanbladan egon zan. Arteako Herriko Benta, Arratiako baserriar agroekologikoen produktuak erabili eta saldu egiten ditu eta errefujiaduen alde be egiten dau behar. "Hau udal espazioa da, lan bat egiteko erreminta dana. Benetako

Via Campesinaren VII. Nazinoarteko Konferentzia Derion izan zan, EHNE Bizkaiak antolatuta, garagarrilaren 19tik 24ra. Mundu mailako nekazal mobimetu hau Mons-en (Belgika) sortu zan 1993an eta lau kontinenteetako 200 miloe laborari baino gehiago ordezkatzan ditu, nekazaritza iraunkorraren eta elikadura eredu jasangarri eta arduratsu baten defentsan



Mar Garrote eta Nadia Ayuso Maskilu konserberan azalpenak emoten.



elikadura burujabetza erabilten dogu geure plateretan. Baserritarrek gure ortuariak landuten dabez, hona datozenak jan dagiezan gure jatekoak". Baina Europako mugak zarratu egin ditue, euren herrialdeetatik igesi doan jenteari hona etortea gatxago eginez. Ha-ta guzti be errefujiaduak "hemen daukie euren etxea" esan eban Egiluzek, eta Ongi Etorri Errefuxiatuak Plataformeari emon eutsan berbea.

Mugaz Zabalduz karabaneagaz Melillatik etorri barri zan Mikel Zuluagak hartu eban berbea orduan.

Zuluagak inok ez dauala auke ratzen non jaio eta danok euki behar doguzala bizi baldintza eta eskubide bardinak ekarri eban gogora. "Etxe honetan mugarik egon ez daiten saiatzen gara" esan eban. Europarron konsumo mailak Europatik kanpo gerrak eta pobrezia sortzean ditu, eta jente askok bere herrialdea itxi behar izaten dau bizimodu duin baten bila joateko. Elikadura burujabetzak migrazioak gixitu daitezela be esan eban, "jenteak ezin badau lurra landu, migrazioak jarraituko dabe". Mundu hobe bat egiteko, europarrak bizi-maila jeitsi, eta migrazio politikak salatuten animau ebazan.

Egiluzek, Herriko Bentan dana konpartiduteko dala eta nekazarien laguntzeagaz kapitalismotik kanpo dagozan bizimoduak egiten ikasiko dogula esan eban. Igor Etxanizek Arteako alkateak Udala sano pozik dagoala Herriko Bentako proiektuagaz adierazo eban. "Apustu gogorra izan da, baina badirudi apurka-apurka aurrera doala, elikadura burujabetzaren alde eta errefujiaduen alde".

#### **Etxebarrie baserria, salmenta zuzena**

European egin eben nekazariak

hurrengo bisitea, Aner Mimenza eta Borja Fernandez de Pinedoren ustiapena, hain zuzen be. Etxebarrie baserrian, konsumo taldeentzako ortuariak, ogia eta ezta egiten dabe eta talde erdiak erlezain erropakaz erlauntzetara jo eban bitartean, beste erdia negutegieta- ra abiatu zan.

Hektarea bi daukiez bazkideak eta kooperatiba moduan funtzionetan dabe. Mimenzak eta Fernando de Pinedok beste proiektu batzuetan be hartzean dabe parte: Maskilun, barbarako, eta ardi esneagaz produktuak egiten dauan beste proiektu baten be bai.

Gazteai ustiapenaren lehenengo urtetan, oindino gixtu produziduten dauanean bizi ahal izateko eta inbersinoak egiteko Europak diru laguntzak emoten dauzala azaldu eban Mimenzak. Holan egin dabez negutegiak. Baina diru laguntzak jasoteko, norberak ipini behar dau dirua alde aurretik, askotan "joko finantziarioren baten" sartuz.

Sasioan sasoiko barazkiak landatuten dabez Etxebarrien, eta denpora guztian zerbaist landatuta eukiten dabe. "Landare gehienak bertokoak dira. Sail horretan 14 bariedade tomate dagoz. Ondoan 6 bariedade pipar, berenjenak, meloia...". Labrantzak txandak tzen ditue lurra agortu ez daiten: frutua, ostoa eta zuztarrak. Tomatea edo piparra frutuak dira, azea edo espinakea ostoa eta patatea zuztarrak. Hiru landare mota horreek nezesidade desbardinak daukiez eta lurraren elementu desbardinak hartzean dabez. Horregaitik, aldatzean, atsedendia emoten jako lurrari agortu ez daiten. Lurra ontzeko, behi simaurra, konposta, mikroorganismoak eta zizareak erabilten dabez eta izurriteen kontrako kontrola eskuz egiten dabe.

Eskolea be bada Etxebarrie baserria. Agroekologiaren gaineko dobaneko ikastaroak emoten ditue bertan. Eskola ez ofizialak dira, EHNE sindikatuaren eskolak, "campesino a campesino" metodologia erabilten dabenak.

Banaketeari jagokonean, salmenta zuzenaren aldeko apustua egin dabe. 25 bat familientzako otzarak prestatuten dabez astero ortuari, propoleo eta gaztaiagaz. Arratian eskeintza baino eskaera handiago dagoala dino baserritarrek. Hau da, jenteak bertoko produktua gura dau eta Arratiako baserritar agroekologiakoak ez dabe nahikoa ekoizten eskaerea beteteko. Horregaitik, lehenengo sektorea bultzatzeko politika publikoak egin behar dira, gazteak ikusi dagiezan, lanpostuak dagozala eta proiektuak aurrera atera daitezkezala.

#### **Kiñu Gaztetxea eta Igitie**

Igorren bazkaldu eben Via Campesinakoak Kiñu Gaztetxean. Ortuak ikusitako sasoiko barazkiak, dastatu ebezan Konferentzian izandakoak. Bazkalostean, Igitie Arratiako Baserritar Agroekologikoen alkartearen aurkezpena egin eben eta kantuan eta jantzan amaitu eben bisitea nekazariak.

**Arteako Herriko Bentan, Arratiako baserritar agroekologikoen produktuak erabili eta saldu egiten ditue eta errefujiaduen alde be egiten dabe behar**



Kiñu Gaztetxea, Herriko Benta eta Etxebarrieiko ustiapena.

# ALKIZABAL

## ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)

Basoak garbitzeko makineria

### ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA



## GIZA PROBAK

**Harriti giza proba taldea gero eta indartsuago**

Zeanurin sortutako Harriti giza proba taldea momentu honetan Bizkaian dagoan bakarra da. Askotan beste talderik egon ez arren lehian jarduteko, erakustaldirik ez jakie falta. Atzenengo urtean aldaketa asko dira eta taldea hazi eta indartu egin da.

**Erredakzioa**

Oraingo tiralariak, Zeanuriko Nagore Dominguez, Beatriz Manchado eta Amagoia Santacoloma; Areatzako Ariane Landa eta Janire Campo; Igorreko Esti Olibares, Laura del Olmo eta Eider Gorostiaga, Ugaoko Arrate Arrieta eta Zornotzako Ane Elordi dira. Arkaitz Arana zeanuriztarrak jarraituten dau entrenatzaile.

Eider Gorostiaga tiralariagaz egin dau berba BEGITUk eta honek emon deutso taldearen momentu gozoaren barri.

**Uste dot udan parau barik zabiziela, ezta? Zeintzuk dira zuen hurrengo zitak?**

Abuztuan lau erakustaldi daukaguz berbatuta. Abuztuaren 4an, Erromon 19:00etan; 6an Artaunen 18:00etan; hilaren 9an Gasteizen 12:00etan eta 24an Bilbon 12:00etan.

Urri lehenengoaren 3an, Bermeoko Almike auzuean Emarri eta Ibarraz neurtuko gara eta erakustaldiak izango doguz Marriagan, urri lehenengoaren 9an; Ugaon hurrengo egunean; Diman 16an, eta Ortuellan 30ean.

**Momentu gozoa bizi dau taldeak orduan.**

Bai. Urte honetan aldaketa itzelak egon dira, baina beti hobera. Publizitatea lortu dogu eta horregaz batera finantza kontuak be aurrera doaz. Udan bakarrik ez, urtean zehar be Facebook eta kontaktu barrien bitartez, plaza pilo bat lortzean gabiz. Holan, auzo txikerretik kapitalera mobidu gara. Gure asmoa Euskal Herritik urtetea da, baina horrek denporea behar dau. Gurako geunke Euskal Herritik kanpo be gure kirola erakutsi.

Gitxitan egiten dogu erakustaldia geuk bakarrik. Batzuetan abere baten kontra izaten da (astoa, zaldia...). Gu danerako prest gagoz.

Dana dala, herri kirol honek indarra hartzea eta Bizkaiko herrietan talde gehiago sortzea espero dogu.

**Urri lehenengoan talde bigaz neurtuko zarie Bermeon. Zein da faboritua? Zeintzuk dira zuen espektatibak?**

Bermeoko auzo bateko jaiak dira, Almike auzokoak. Igaz be egon ginan eta Emarrigaz neurtu ginan. Aurten hiru talde egongo gara. Gu



**Harriti taldekoak Igorren erakustaldi baten.**

biok eta Ibarra. Ibarra talde gogorra izan zan aspaldi, baina gero banandu egin ziran eta, itxuraz, aurten barriro gogotsu datoz.

Jaiak dirala eta, uda da gure tenporadako unerik altuena. Taldea batzea gatz izaten da, batzuk eskapau egiten diralako eta ez dogulako koinzididuten oporraldian. Aurten lortu dogu Igorreko Udalen gimnasioa astean bitan ixtea eta talde osoa ez badago be, ahaleginduten gara egun horreetan entrenetan.

**Giza-probak badaukie publiko zaleturik? Zein izan da orain arte publikoaren erantzuna? Hasi zinenetik orain arte aldatu egin da?**

Publiko aukiten dogu, gehien bat nobedadeagaitik. Jente askok ez dauz inoz ikusi giza probak, eta ondino gitxiago 8 andra harri bateri tiraka. Segun non dan arrakasta handia aukiten dogu. Ez dago ja-

kiterik ze publiko topatuko dogun. Jentea espero dozun leku baten, inor ez egotea gertatu leiteke, eta auzo txikerrean barriz, publiko itzela, txalo zaparradak. Auzotar zaharrenak pilo bat gustau jakie esaten hurbiltzen dira eta gazteenak probetan be animetan dira. Horreek dira guri gustetan jakuzan plazak.

Jentea egoteko ala ez faktore asko dagoz (ordua, lekua, eguraldia eta abar), baina datozenak pozik joaten dira. Eta gu be beti joaten gara etxera zapore onagaz, egiten doguna gustetan jakulako eta Bizkaiko herri eta txokorik ederrenak ezetuten hasi garalako. A zelango parajeak daukaguzan!

**Harriti Arratiako taldea da momentu honetan?**

Taldea hasikera baten Arratiako talde lez sortu zan, baina neska falta dala eta Bizkaiko talde bakarra

garana lez, Bizkaira zabaldu behar izan dogu deialdia. Une honetan danok bizi gara Arratian bi ezin ezik. Dana dala, Bizkaiko taldea edo Bizkaiko talde bakarra garala esan geinke harro.

Ateak zabalik daukaguz parte hartu gura dauan edozein andrarentzat. Entrenamentu egun baten, Zeanuriko probalekuan agertzea nahikoa da. Facebook-etik be kontaktau daiteke gugaz.

**Astean zenbat aldiz eta non entrenetan dozue?**

Astean behin egiten dogu talde entrenamentua harriagaz. Normalean eguenetan arrastiko 20:00etan izaten da Zeanuriko probalekuan. Hori da gure probaleku ofiziala. Igorreko Udalen laguntzeagaz martitzen eta zapatuetan be ordutegi zehatz baten gimnasia sartzeako aukerea daukagu.

## LASTO-JASOTZEA

**Dimoztar bi Euskadiko Lasto-jasotze Txapelketan****Erredakzioa**

Abuztuaren 16an, Laudion (Araba) jokatu da eta bertan oingo txapel-duna Jose Martin Bustinza "Tubi" eta Jon Loiola dimoztarrak saiatuko dira aurtengo txapela eskuratzen.

Txapela defendiduten joango dala baina 25 jasoalditan berak ezarritako marka apurtzeko esperantzarik ez daukala azaldu deutso txapel-dunak BEGITUri. "Maila altua da. Ea irabazten dodan!" dino Bustinzak.

Jon Loiola Bizkaiko txapel-duna

be izango da lehian. Bere marka 22 jasoalditan dago eta Tubi egonda gatxa izango dala irabaztea uste dau. Baina "irabazteko asmoagaz" doala azaldu deutso BEGITUri.

Urri lehenengoaren 9an Saran jokatu diran Zazpi Herrialdeen arteko Herri Kirol Txapelketan be egongo dira Dimako lasto-jasotzaile biak.

## HERRI KIROLAK

**Irati Astondoak Europako Segatxapelketea jokatu dau****Erredakzioa**

Europako Segatxapelketea hilaren 18tik 20ra jokatu da Brunnen-en (Suitza). Euskal Herriko ordezkariak, 5 andrazko eta 10 gizonen osotuten

dabe. Irati Astondoa zeanuriztara da bizkaitar bakarra. Bosgarren aldia da segalari zeanuriztarrak Europako Txapelketan parte hartzean daua. Urte birik behin jokatu da eta atzena, 2015ean, Azpeitian jokatu zan. Euskal Herriko Selekzioak inoz ez dau irabazi. Faboritoak suitzarrak dira.

**Azkora erakustaldiak**

Sega ez da Astondoak egiten dauan kirol bakarra. Azkora erakustaldiak be egingo ditu abuztuan, aitagariena Bilboko Aste Nagusian egingo daua Alatzne Etxaburuagaz batera.

## MENDI MARTXEA

**Urri lehenengoaren 9an izango dan Areatzako martxan parte hartzeako izena emon daiteke****Erredakzioa**

Areatzako Mendi Martxearen seigarren edizioa urri lehenengoaren 9an izango da. Bertan parte hartzeako izena emon daiteke Areatzako Mendi Martxearen webgunean urri lehenengoaren 7ra arte.

Igazko moduan ibilbide bi dagoz. Luzeak 28 km. ditu eta 1.700 m.ko desnibela; laburrak barriz, 19 km. eta 900 m.ko desnibela. Aurten, barriro homologazioa lortu dauan PR-BI9 bidetik joango da martxea. Izena [www.areatzakomendimartxa.blogspot.com](http://www.areatzakomendimartxa.blogspot.com) webgunean edo egunean

bertan urtekera puntuan 07:15etik aurrera emon daiteke. Partaideak 08:00etan abiatuko dira plazatik.

Aurten be Areatzako Neberoa ezetuteko aukerea izango dabe parte hartzaileak, bertatik pasauko diralako ibilbide biak.

**Parrilladea eta oparia**

Martxea amaitutakoan, indarrak barritatzeko, parrilladea egongo da ibiltarientzat, eta opari bana jasoko dabe. Gainera, Areatzako Hotel Bainuetxean gau bat eta Atxarte Mendiko dendaren materiala zozketatuko dira.



## ESKU PELOTEA

# Lemoako Pelota Eskolea balantze ona eginda datorren ikasturteari begira dago

Arratiako pelotari profesional gehienak Lemoako Pelota Eskolan ikasi eben; Imanol Agirrek, Xabier Galarzak eta Iñigo Leizak, barbarako. Arratian erreferente bat izan dala eta dala dino Imanol Arrese entrenadoreak. Aurreko ikasturtean be hainbat txapelketa eta torneo irabazi dabe Lemoako Pelota Eskolako ikasleak.

Lemoako Pelota Eskolean "bihotza eta indarra" Aitor Erauzkin da, eta entrenadore lanak egiteaz gainera, kudeaketa lanak be egiten ditu.

### Erredakzioa

Eskola kirola mailan, 6-7 urtetatik 12-13 urtera arte, 210 pelotari eta lau entrenadore dagoz; Kadeteetatik aurrera, 14 urtetik 40 urtera arte, beste 25 inguru emoitza onakaz. "Gaur egun Lemoako eskupelota kluba osasuntsu dago, edade guztietako pelotariak daukaguz nahiko perspektiba onakaz. Etorkizuna ikusten jako eskoleari" azaldu deutso BEGITURI Imanol Arresek. Aitor Erauzkin, Imanol Arrese, Unai Lejarreta eta Ruslan Rodero dira Eskola Kirola mailako entrenatzaileak.

### Harrobia eta profesionalak

Txikerrenak, Hasibarriak eta Aurremetxoak Arratia-Nerbioi Eskualdeko Txapelketea jokatuten dabe. Benjamin, Alebin eta Infantil kategorietan, Bizkaiko Txapelketea jokatuten da. Bizkaiko Txapelketearen lehenengo zatia binaka jokatuten da eta bigarrena, buruz burukoa da. Arratia-Nerbioi, barriz, binaka jokatuten da buelta biak. Aurten, Arratia-Nerbioiko Hasibarriak maila Lemoako Pelota Eskolako Joseba Bediagak eta Maialen Gastonek irabazi eben.

Bizkaiko Txapelketan be lortu dauz txapelak Lemoak; Alebin kategorian, Eder Gallego eta Iker

Ortiz izan dira irabazleak. Gazte mailan, Mikel Aurrekoetxea txapeldunorde izan da. Eta Nagusi mailan lortutakoa azpimarratu gura dau Arresek. Izan be, Ander Elezkano Bizkaiko txapelduna izan da buruz burukoan. Hau da, mailarik altuenean, aurtengo Bizkaiko txapelduna Lemoako klubekoa da. Binakakoan be, Lemoako bikote bat txapeldunorde geratu zan, Aitor Etxebarriak eta Oier Etxebarriak osotutako bikotea, hain zuzen be.

Oier Etxebarria proiektino handiko pelotaria da eta laster debuta egitea espero dabe. "Aspe enpre-seagaz dabil entrenetan. Ez dakigu debutauko dauan ala ez, baina sano proiektino ona dauka. Espero dogu etorkizun laburrera gure beste pelotari bat hor goian ikustea".

Euskal Herriko Kluben arteko Txapelketan, hirugarren egin eban Lemoak.

### Alkarrerri lagundutearen balioa

Ikasturte amaieran, eskolakoak Txutxin Txapelketea jokatutean. Aurten, formato desbardina emon deusie, lehiakortasuna bultzatu beharrea alkarrerri laguntzearen balioa erakusteko. Finalak bagilaren 29an izan ziran. Benjamin, Alebin eta Infantil kategoriako umeak nahastuta jokatutean. Bikote bat Infantil mailako batek Alebin mai-

lako beste bategaz, barbarako. "Pelotari guztiak beste bikoteen kontra, pelota bigun bategaz danak ondo jokatuteko. Nik pentsetan dot umeai ilusino handia egin eutsela. Benjamin bat ipintea infantil bategaz... asko lagunduten eutsen. Nagusia esaten geuntsen, imajinetako txikien entrenadore dirala. Konplizidade handia egon zan. Benetan sorprendidu egin naz umeen erantzunagaz" dino Arresek.

Ikasturte amaierako jaiak izan

## Europako Gazte Mailako Txapelketea

Gazte Mailako Europako Pelota Txapelketea, 15, 17 eta 19 urtez azpikoa, Tavernes-en (Valentzia) jokatutean garagarilaren 25etik 28ra. Bertan Euskal Selekzioa egon zan. Zazpi pelotarik, eta Lemoako Pelota Eskolako Aitor Erauzkinek teknikari lanetan, osotu dabe Euskal Selekzioa. 19 urtez azpikoan, arratier bat egon da: Lur Ziarrusta Dimako Txumulueta Eskolako.

Txapelketea CIJB mundu osoko federazioak, Euskal Herrikoak barne, osotuten daben erakundeak antolatu eban. Hiru modalidatetan jokatutean, Joko internazionala, Llargues eta One Wall modalidatetan, hain zuzen be. Euskal Selekzioa



zan, eta maila guztietako umeak jokatutean. Gero Nagusien partidu bat be egon zan, umeak ikusteko zer dan Nagusi mailako partidu bat: zelan erabilten daben frontoi osoa, pelota gogorragaz jokatutean dala eta abar.

Amaitzeko sari banaketean egon zan eta klub osoaren argazkia.

### Ikasturte barrirako erronkak

2017-2018 ikasturteari begira hainbat erronka ditu Lemoako klubak. Alde batetik, Zuzendaritza Batzordea barrizatu gura dabe, lanak hobeto bananduteko. Bestetik, neska gehiago erakartea da

erronka eta horretarako pala talde bat egin gura dabe.

Neska, Infantil kategorian arte, mutilakaz jokatutean daikie, baina gero ez, eta ez dago neska pelotari nahikorik urte osoko egutegi bat egiteko. Palar, barriz, gehiago dira eta egutegia zabalagoa da, urte osoan zehar jokatuteko modukoa. Horregaitik, pala talde bat sortzean saiatuko dira.

Aurreko ikasturtean, JB Eguzkitza Meabe eskola-umeen talde bat euki eben. 6-7 urteko 29 ume entrenau dabez janlekuko atsedendian. Sano pozik dagoz emoitzeagaz eta datorren urtera begira talde hori mantendutea gura dabe.

Valentzia, Belgika, Holanda, Italia eta Frantziako selekzioakaz neurtu da, mutiletan bakarrik, neska talderik osotutea ez dabe lortu eta.

### Emoitza onak

Euskal Selekzioa txapelketa honean parte hartzean dauan lehenengo aldia dala kontuan izanda, pozik dago Erauzkin lortutako emoitzeak. Izan be, Joko internazionalan, lau-

garren egin dabe Euskal Herrikoak eta Llargues modalidatean, hirugarren. One Wall modalidatean, 15 urtez azpikoak hirugarren, 17 urtez azpikoak laugarren eta 19 urtez azpikoak hirugarren egin eben.

Zemendiaren 19tik 25era Munduko Txapelketea, Nagusi mailan jokatuteko da Kolonbian, eta bertan egongo da Euskal Selekzioa, neska zein mutiletan.



## TXIRRINDULARITZEA

# Oskar Garro laugarren Munduko Kopako karrera baten

### Erredakzioa

Munduko Kopan egindakoagaz pozik agertu da Oskar Garro txirrindularitza egokituko Igorreko txirrindularia. Podium-ik egin ez arren, datorren urteari begira, emoitza honek aurrerapausu handia egin daua dino.

Bagilaren 30etik garagarilaren 2ra, Holandako Emmen herrian jokatutako probetan hartu eban

parte Garrok. Lehenengoa, erlojupeko 16 km.ko lasterketea izan zan eta arratiarrak 21. egin eban. Ez da bere espezialidadea eta pozik dago lortutako emoitzeagaz. Baina emoitzarik onena atzen egunekoa izan zan. Izan be, laugarren postua lortu eban igorretarrak 71 km.ko proban. "Lorpen honek pausu oso handia egin dot hurrengo urteko helmugak gaintzeko" dino txirrindulariak.

## GOLFA

# Kepa Ikutza golf jokalaririk dimoztarra hirugarren dago Espainiako Txapelketarako sailkapen taulan

### Erredakzioa

Espainiako autonomien arteko Pitch and Putt Txapelketea urrietan jokatuteko da Madrilan eta bertan Euskadiko Selekzioa izango da. Lau Pitch and Putt jokalaririk osotuko dabe selekzioa eta honek aukeratutako 9 proba egin-

go dira Euskadin. Proben erdiak jokatutean diranean, hirugarren da Kepa Ikutza dimoztarra.

Munduko jokalaririk onenetakoz neurtu da Ikutza azken hileotan. Izan be, Munduko Banakako Pitch and Putt Txapelketea jokatutean dau Norvegian, garagarilaren 8 eta 9ko astegienean eta taularen

erdian geratu da, 40. postuan, 80 jokalariren artean. Binakakoa be jokatutean eban bagilean eta han be Ikutza eta Mungiako Luis Alonsok osotuten daben bikoak, taularen erdian amaitu eban, 21. eginda.



Kepa Ikutza Selekzioaren kideak.



## KONTZERTUA

## Unai Ormaetxea idazlea eta Mikel Inunziaga "Inun" musikariaren kontzertua Herriko Bentan



Ormaetxea eta Inunziaga.

## Erredakzioa

Ormaetxearen *Bille* liburuan oinarritutako kontzertua eskeiniko dabe abuztuaren 4an, 19:30ean, Arteako Herriko Bentan.

Unai Ormaetxea Zornotzako bertsolari eta idazlea ezaguna da Arratian. Igazko Dimako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketan bigarren saria jaso eban "Woodstock" lanagaitik eta Eskualdeetako Bertsolari Txapelketan, Arratia taldeko partaide be izan da. Exixu taldeko kidea izan zan eta hainbat kantu ezagunen egilea da. Bertsolaritza eta rocka buztartzen ditu eta *Bille* argitaratu dauan bigarren liburua da.

Ormaetxea ezaguna bada Arratian, Inun beste horrenbeste. Beragaz batera Bihotz Gorospe igorretarrak kantetan dau askotan eta emonaldi asko egin ditue eskualdean. Disko bi kaleratu ditu Inunek: *Berreginez* (2014) eta *Da nola* (2016).

Musikazale zein literaturzaleentzat galdu ezinezko hitzordua, beraz.

## MEMORIA HISTORIKOA

## Lubakiak errekuperetan jardun dabe Auzolandegietako lehenengo txandakoak

Lemoatxen Ganzabal mendiaren azpian, mundu zabaletik etorritako 18 gaztek, Aranzadi Zientzia Elkarteko teknikarien zuzandaritzapean, 1936ko gerrako lubakiak errekuperetako beharrean jardun dabe.

## Erredakzioa

Auzolandegiak 2017 programakoak izan dira. Orain abuztuan, bigarren txandak emongo deutso lan horri jarraipena. Lemoatx 1937 Memoria Historikoa errekuperetako Batzordearen ekimenez, Lemoako Udalak Eusko Jaurlaritzaren Auzolandegiak programan sartu ebazan 2013an. Harrezkerotik, urtean-urtean 40 bat gazte etorten dira txanda bitan behar hori egitera. Inguru horretan, bagilan miliziano baten gorpuzkia atera eben. Horregaitik, aurkikuntza interesgarriak egin daitezkeza bertan uste dau Mikel Garcia Lemoako Gazte Teknikariak.

## Goizetan behar egin...

Lehenengo txandakoak, BEGITU zarratu arte, munizinoak, bala-zorroak, orraziak eta antzeko gauzak baino ez ditue topau. "Sei lekutan egingo dogu lan; lehenengo hamabostaldian hirutan. Leku bako-ta mugatuta dago gero zerbaist agertzen bada jakiteko non agertu dan, eta gero ikerketa arkeologikoa egiteko. Momentuz egin dogun lana izan da, landareak kendu, apurka-apurka kota zerora heltzeako" azaldu eutsan lekuan bertan garagarriaren 20an BEGI-

turi Mikel Diego Aranzadikoak, eskabaten hasi ziran. Kota zero horretara heldutakoan, Auzolandegian, Aranzadiko lau

Beharrean etenalditxo bat egin eta partaide bik zergaitik aukeratu dabean Lemoako Auzolandegia, eta zer iruditu jakien esperientzia kontau deuskue.

## Carla, 19 urte (Madril)


Auzolandegi baten bila nenbilen eta, Memoria Historikoz gauza handirik jakin ez arren, -eskolan ikasitakoa baino ez- oso interesantea iruditu jatan. Euria ez jata desatsegin egiten, nahiz eta batzuk kejav. Bero handiagaz behar egitea gogorragoa da.

Arrastian atzo Bilbora joan ginan eta oso ondo pasau genduan. Beste batzuetan igerilekuetara joan gara edo begiraleak proposatutako ekintzak egin doguz. Sano hartu-emon estuak egin doguz auzolandegiko kideen artean. Herrialde desbardineta jentea dago eta hori oso ondo dago.

## Cheng Tzu Wel, 21 urte (Tai Pei)

Nire bigarren auzolandegia da hau. Lehenengoa Galizan egin neban eta asko gustau jatan. Han, monumentu historiko bat egoan eta bideko otea kendu behar izan genduan. Hemengo kultura gustetan jata eta gaztelania ikasi gura dot. Unibersidadearen bitartez jakin neban Lemoako Auzolandegiaren barri.

Eguraldia, lekua, lagunak... dana itzel dago! Eguraldia hemengo tipikoa da, taldekideak oso sinpatikoak dira eta Lemoa herri txikia da baina asko gustau jata.



Cheng Tzu Wel.



Carla.



teknikari egon dira gazteakaz beharrean: Julian Blanco eta Alba Peña Muñoz arkeologoak, teknikari bat eta Mikel Diego historialaria Lemoako Udalean be behar egiten dauana. Arkeologoak materialaren erregistroa egiten dabe, gero txosten bat egiteko.

Euskal Herriatik, Castellon, Teruel, Madril, baina baita Korea, Tai Wan, Kazajistan edo Errusiatik etorritako gazteak, astelehenetik barikurako goizetan atxurra hartu eta mendian beharrean jardun dabe.

## ...eta arrastietan lekua ezetu

Arrastietan eta astegoienetan ondo merezidutako deskantsua izan dabe. Gazteak entreteniduteko ardurea begiraleak daukie. "Eguraldia eta euren gogoaren arabera ekintzak prestatzen doguz" dino Amaia Cayero begiraleak. Bilbon pintxo-potea eta kayaketan ibili, euskal jantzak ikasi... Lemoako jaietan be parte hartuko dabe, play-backean eta Mozorro Lehiaketan, barbarako.

Zapatu-domeketan txangoak egin ditue.



Udarako BEGITUren kamiseta barriak salgai

10 eurotan, Begitu-lagunak 8 euro

Bialdu mezua [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera neurria adierazoz

**izkaifisios**

IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA  
Elexalde, 4  
48140 Igorre  
94 631 55 08  
[igorre@izkaifisios.com](mailto:igorre@izkaifisios.com)

ANDRA MARI KLINIKEA  
Portzi Zabala, 1  
48960 Galdakao  
94 457 23 64  
[galdakao@izkaifisios.com](mailto:galdakao@izkaifisios.com)



MUSIKEA

# Hiru sari jaso ebazan Zazkel taldeak Leioako XVII. Pop Rock Lehiaketan

**Erredakzioa**

Leioako Pop Rock Lehiaketan, Irabazle orokorraren saria, Pop Rock irabazlea eta "Eri" abestiagaz Euskerazko kantarik onenari saria irabazi dauz Zeberioako Zazkel taldeak aurtengo edizinoan. Hiru sari posibleetatik hirurak. Leioako Pop Rock Lehiaketan, 70 taldek hartu eben parte guztira. Pop Rock modalidadean 52 taldek eta 18 taldek Metal modalidadean. Parte-hartzaileen artean, 38 talde Euskal Herrikoak izan ziran eta 32 beste komunitate batzuetakoak. Horrez gainera, 10 talde Euskera Zerbitzua sari berezira aurkeztu ziran.

Euren musikeagaz gozatuteko aukerea egon zan BBK Liven, 2016ko Banden Lehia irabazi eben eta eta sano kritika onak jaso ebazan euren emonaldia. Aukerea aprobetxau eta orokorrean gustura egon baziran be, kritikoak dira antolakuntzeagaz. "Pena da holango ekitaldi baten euskereari egiten deusien kasu apurra... bai taldeetan bai antolakuntzan. Bestalde, talde txikia garana lez, holango arreta jaso izan dogu eta, nahiz eta espero genduan, espero dogu datozen Banden Lehia irabazleakazko

arretea aldatzea, bertan jotzen daben artista guztiak legez, merezi izango dabe eta".

**Bilboko taldekideak, Zeberio taldea**

Sei kidek osotuten dabe Zeberio taldea. "Taldekideak berez danok gara bilbotarrak, Txosk kenduta, Algortakoa dana. Axierito Villan bateria jolea Zeberion bizi da eta berari esker Zeberion ensaietako aukerea emon euskuen, eskola zaharrean. Beraz nahiz eta gu ez izan zeberioztarrak, taldea badala jotzen dogu" azaldu deusie BEGURI.

Lehenengo diskoa, 2016an grabau eben, Andoaingo Garate estudioetan, Kaki Arkarazoren gidaritzapean. Bigarren diskoa garagarilaren bigarren hamabostaldian grabau dabe eta Banden Lehia 2017ko edizinoa aurkezten dan egunean aurkeztuko dabe.

**Taldekideak**

Irati Arregi, abotsa.  
Etxahun Arregi, abotsa eta gitarrea.  
Jon Tolosa "Tolo", koroak eta gitarrea.  
Asier Martinez, bajua.  
Oscar Rodríguez, tekladuak.  
Axierito Villan, Piarresegaz txandaka, bateria.



Zazkel taldeko kideak.

Argazkia: Hodei Torres.

JAIK

# Jaiak han eta hemen

**Erredakzioa**

Dimako Artaun auzuneko San Bizente jaiak, Zeberioako San Adrian Argiñao auzunean eta Zeanuriko Otzerimendiko sanjustoak dira oingo hileko lehenengo jaiak. Atzen urteotan, Otzerimendiko San Justo jaietan, ermitearen inguruan dagoan karobia biztu izan da abuztuko lehenengo zapatu-domekan. Aurten barriz, Txorokil alkarteak ezin izan dau ekintza hori antolatu.

Hilaren 10ean, San Lorentzo jaiak edo sanlontxoak, Bediako Murtatzen, Lemoako Azurrekan eta Zeberioako Elizondon ospatuko dabez. Hilaren erdian, andramariak Igorren eta Zeberioan. Hurrengo eguna be, San Roke hain zuzen be, jai eguna da leku askotan: Dimako Olazabalen eta Bediako San Roke ermitan, barbarako. Han, 12:00etako mezearen ostean, barauskarria, trikitixea eta jantzak egongo dira. Hilaren 24an, sanbartolomeak, ospatuko ditue Igorreko Urkizun eta Zeberioko Urizarren.

**Otzerimendi (Zeanuri) San Justo jaiak**

**Abuztuak 5, zapatua**  
12:00etan, mezea. Ostean barauskarria.  
14:00etan, Paella eta Tortilla Lehiaketetako sari banaketea.  
14:30ean, auzo bazkaria.  
17:30ean, Mus Txapelketea eta Bola Jokoa.

**Artaun (Dima)**

**Abuztuak 5, zapatua**  
18:30ean, Bola Txapelketea XX. Lourdes Sorraluze Saria.  
19:00etan, txupinazoa.  
20:00etan, txixi-burruntzia eta EINGO taldeagaz erromeria.

**Abuztuak 6, domekea**

12:00etan, mezea eta ostean barauskarria.  
13:30ean, trikipotea eta Herri Kirolak. Harriti taldea, azkolariak: Aitzol Atutxa eta Irati Astondoa; lasto altxatza: Jon Loiola eta Jon Lapazaran.



22:30ean, trikitilariak. Bitartean, mozerro erakusketea eta zozketea.

**Abuztuak 7, astelehena**

12:00etan, mezea; umeen jolasak eta umeen herri kirolak.  
12:30ean, Mus Txapelketea.  
17:00etan, Briska Txapelketea.  
19:00etan, Tortilla Txapelketea.  
19:30ean, Igel Txapelketea.  
20:00etan, zunba.  
21:00etan, jaien amaiera eta txokolatea.

**Azurreka (Lemoa) Abuztuak 10, eguna**

12:00etan, meza nagusia San Lorentzo ermitan. Ondoren barauska-



ria trikitilariakaz.  
18:00etan, umeentzako jokoak eta Igel Txapelketea.

**Igorre. Udako jaiak. Andra Mari Abuztuak 15,**

10:30ean, XXIX. Andra Mari Saria. Gazte Mailako Txirindulari Txapelketea.  
12:30ean, mezea.  
13:15ean, barauskarria Goiko Plazan.  
16:00etan, Briska, Mus eta Tute Txapelketak Beheko Plazan. Izen emotea 15:30ean. Sariak: euskal produktuen otzarak.  
17:30ean, Igel Txapelketea Beheko Plazan. Izen emotea 17:00etan. Sariak: euskal produktuen otzarak.  
18:00etan, DJ Ismagaz jantzaldia Beheko Plazan. Bitartean txokolatea.

**Olazabal (Dima) Abuztuak 15, martitzena Andra Mari Eguna**

12:30ean, Txakolin Eguna.  
19:00etan, Angel Larrearen baldia "Izan ziralako gara".

**Abuztuak 16, eguaztena San Roke Eguna**

08:00etan, Ilunbera ibilbidea.  
12:00etan, meza nagusia eta umeentzako jolasak.  
13:30ean, Nagusien Bola Txapelketea.  
17:00etan, Umeen Bola Txapelketea (6-9 urte eta 10-12 urte).  
18:00etan, HerriSport.  
19:30ean, umeentzako baloiak eta txokolatea.  
20:00etan, zozketea.

**Abuztuak 17, eguna**

12:00etan, mezea.  
14:00etan, auzo bazkaria. Bazkalostean erromeria.

**Olaxte**  
Graduazioak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gibusua  
Begiko tentsioa  
Lentilen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak  
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - olaxteoptika@hotmail.es

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK  
MOKETA • SINTASOLA • PAPEREA  
Elizalde, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 631 54 62 - 908 954 018

**Abel Lapatza Iza**  
Taxi zerbitzua 24 ordu  
Dima  
946 317 252  
608 287 249

**arratiako instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak  
Igorreko Industrialdea  
Pab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

**RUGBY TABERNA**  
Egin zaitetz bazkide!  
09:30etik zabalik  
Asteburretan pintxo bereziak  
arratiko.zekorrak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

**begitu**  
arratia ubide zehar



## AGENDEA

**ABUZTUAK 4  
ARTEA**

19:30ean, Inun & Ormaren *Bille* ikus-entzunezkoa Herriko Bentan.

**ABUZTUAK 5  
DIMA**

Artaungo jaiak. 18:30ean, Bola Txapelketea XX. Lourdes Sorluzeta Saria; 19:00etan, txupinazoa; 20:00etan, txixi-burruntzia eta EinGO taldeagaz erromeria.

**ZEANURI**

San Justo jaiak Otzerinmendin. 12:00etan, mezea. Meza ostean barauskarria; 14:00etan, Paella eta Tortilla Lehiaketetako sari banaketea; 14:30ean, auzo bazkaria; 17:30ean, Mus Txapelketea eta Bola Jokoa.

**ABUZTUAK 6  
DIMA**

Artaungo jaiak. 12:00etan, mezea eta ostean barauskarria; 13:30ean, trikipotea eta Herri Kirolak. Harriti taldea, azkolaria: Aitzol Atutxa eta Irati Astondoa; lasto altxatzea: Jon Loiola eta Jon Lapazaran; 22:30ean, trikitilariak. Bitartean, mozorro erakusketeta eta zozketea.

**ZEBERIO**

San Adrian jaiak Argiñao auzoan. 13:00etan, mezea eta ondoren barauskarria.

**ABUZTUAK 7  
DIMA**

Artaungo jaiak. 12:00etan, mezea; umeen jolasak eta umeen herri kirolak; 12:30ean, Mus Txapelketea; 17:00etan, Briska Txapelketea; 19:00etan, Tortilla Txapelketea; 19:30ean Igel Txapelketea; 20:00etan, zunba; 21:00etan, jaien amaieria eta txokolatea.

**ABUZTUAK 10  
BEDIA**

San Lorentzo jaiak Murtatzen. 12:00etan mezea Murtatzen. Ondoren barauskarria eta trikitixea eta Mus Txapelketea;

17:00etan, Briska Txapelketea.

**LEMOA**

Azurrekako jaiak. 12:00etan, meza nagusia San Lorentzo ermitan. Ondoren barauskarria trikitilariak; 18:00etan, umeentzako jokoak eta Igel Txapelketea.

**ZEBERIO**

San Lontzo jaiak Elizondo auzoan. 12:00etan mezea eta ondoren barauskarria.

**ABUZTUAK 11  
IGORRE**

18:00etan, futbol partidua Urbietan. Andra Mari Saria. Arratia-Deusto.

**ABUZTUAK 12  
IGORRE**

18:00etan, futbol partidua Urbietan. Andra

Mari Saria. Alaves B-Bermeo.

**ZEANURI**

Andra Mari jaiak. 19:00etan txupinazoa. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**ABUZTUAK 13  
IGORRE**

18:00etan, futbol partidua Urbietan. Andra Mari Sariaren finala.

**ABUZTUAK 15  
DIMA**

12:30ean, Txakolin Eguna; 19:00etan, Angel Larrearen berbaldea "Izan ziralako gara". Olazabalen.

**IGORRE**

Udako jaiak. 10:30ean, XXIX. Andra Mari Saria. Gazte Mailako Txirridulari Txapelketea;

12:30ean, mezea; 13:15ean, barauskarria Goiko Plazan; 16:00etan, Briska, Mus eta Tute Txapelketak Beheko Plazan. Izen emotea 15:30ean. Sariak: euskal produktuen otzarak; 17:30ean, Igel Txapelketea Beheko Plazan. Izen emotea 17:00etan. Sariak: euskal produktuen otzarak; 18:00etan, DJ Ismagaz jantzaldea Beheko Plazan. Bitartean txokolatea.

**ZEBERIO**

Andra Mari jaiak Zeberiogane auzoan. 13:00etan, mezea eta ondoren barauskarria.

**ABUZTUAK 16  
BEDIA**

12:00etan, mezea San Roke ermitan. Ondoren barauskarria, trikitixea eta jantzak.

**DIMA**

Olazabalgo jaiak. 08:00etan, Ilunbera

**ABUZTUAK 23  
AREATZA**

San Bartolome jaiak. 14:00etan txupinazoa. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

**ABUZTUAK 24  
ZEBERIO**

San Bartolome jaiak Urizar auzoan. 12:00etan, mezea eta ondoren barauskarria.

**ABUZTUAK 26  
ZEBERIO**

11:00etan, Asel Ozenrinjaregi XXIII. Memoriala Txirridulari Lasterketea. Kadete maila, Bizkimuak Challengerako puntuagarria.

**ABUZTUAK 28  
ZEBERIO**

17:30ean, umeen jolasak Gaztelekuan.

**ABUZTUAK 29  
ZEBERIO**

17:30ean, umeen jolasak plazan.

**ABUZTUAK 30  
ZEBERIO**

17:30ean, Zirkun Zirkoren zirku tailerra kalean 7 urteko gorakoentzat; 19:00etan, Bits Jaia.

**ABUZTUAK 31  
ZEBERIO**

Sandoni jaiak. 19:00etan, txupinazoa. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.



Argazkia: Miren Idigoras.

**Lehenengoz zeanuriztar bi Euskadiko Trikitilari Gazteen Txapelketan**

Abuztuaren 15ean, arrastiko 18:00etan, Euskadiko Trikitilari Gazteen Txapelketaren XXXVII. edizioaren finala jokatu da Zeanuriko plazan. Bertan, Batirtze Mendia panderojole eta Iker Ibarrondo trikitilari zeanuriztarrak hartuko dabe parte.

Finalean 6 bikote hartuko dabe parte eta partaideak 26 urte baino gutxiagokoak izan behar dira. Lau pieza jo behar dabez: jotea, porrusaldea, fandangoa eta arin-arina. Bikote irabazleak, 400 euro eta trofeoa eroango dauz; bigarrenak 310 euro eta trofeoa eta hirugarrenak 275 euro eta trofeoa. Bikote bizkaitar onenak 150 euro eta trofeoa jasoko dauz.

ibilibidea; 12:00etan, meza nagusia eta umeentzako jolasak; 13:30ean, Nagusien Bola Txapelketea; 17:00etan, Umeen Bola Txapelketea (6-9 urte eta 10-12 urte); 18:00etan, HerriSport; 19:30ean, umeentzako baloiak eta txokolatea; 20:00etan, zozketea.

**ABUZTUAK 17  
DIMA**

Olazabalgo jaiak. 12:00etan, mezea; 14:00etan, auzo bazkaria. Bazkalostean erromeria.

## IRAGARKI LABURRAK

**SALDU****ALOKATZEN DA**

100 m<sup>2</sup> dituan lonjea alokatzen da Igorreko erdigunean. Bulego, txoko... edozertarako sano aproposa. Baldintza oso erakargarriak. Deitu 653 745 838 telefonora.

**DANERIK****LAN ESKEINTZA**

Lan eroso eta ondo ordaindutakoa eskeintzen dogu. Telekomunikazino enpresa baten, autonomo edo kolaboratzaileen bila gabiz, ordutegi barik eta komisino handiak pagauta. Deitu 662 568 707 telefonora.

**TIRALARI BILA**

Harriti andra proba taldea, taldean parte hartzeako Arratiako andra bila dabil. Eider 639 293 539.

**LAN BILA**

Bediako neska euskalduna persona helduak edo laguntza behar dabenak jagoteko prest agertzen da. Furgonetaduna. Telefona 688 647 074.

**ETXEA ALOKAIRUAN**

Etxe bat alokairuan Urkuzun. Kamarea, etxebizitza, kortea eta garajea daukaz. Berokuntza txapeagaz. 4 gela, hiru sala, bainugela 2 eta terraza 2. Interesdunak deitu 646 305 624 telefonora (Margari).

**GARAJEA BEHAR DOT**

Karabanea ixteko garajea behar dot Arratian. 7 metroko luzeerea eta 2,60 m.ko altuerea. Deitu 675 712 841 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com-era](mailto:begitu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

**Begitu-lagunen txokoa****Zenbaki honetako saridunak:**

1

BEGITUKO kamiseta bana.

Idoia Zuloaga (Areatza)  
Nekane Intxaurtza (Dima)

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 14 urte eta ehundaka lagun.



# DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Ahul. Hotza adierazoten dau.  
2.- Baita. Hizkuntza. 3.- Ahozkoan, zer, zein. Sortu. 4.- Asko. Bokala. 5.- Ohildu.  
6.- Bat erromatar. Haragia. 7.- Inozo.  
Edabe garbi. 8.- Poza adierazoteko interjekzioa. Eguzki. 9.- Neoia. Egitasmo.

### GOITIK BEHERA

1.- Errekadu. Argi barik. 2.- Laztan.  
Letra izena. 3.- Suagaz batera. Ardura.  
4.- Oxigenoa. Apropos. Fosforoa.  
5.- Ekintza. Jainkoa, hizkuntza semitikoetan. 6.- Gasteizeko kanpo herria. Uhurika. 7.- Nahigabea. Azkar.


N	L	A	P	E	N	E	6
E	K	I	E	F	A	E	8
L	E	L	O	L	O	U	7
L	A	K	E	L	A	9	
U	A	R	I	A	5		
U	G	A	R	I	4		
N	Z	E	E	G	I	3	
L	E	R	E	E	2		
I	M	E	K	O	A	1	
1	2	3	4	5	6	7	

Topau nekazaritzeari lotutako zazpi izen.

B	A	R	R	A	G	A	Z	T	A
L	O	H	I	K	U	N	E	R	O
U	Z	A	A	E	R	O	B	A	L
G	U	Z	T	A	K	U	R	A	E
E	T	I	B	E	R	A	N	G	O
R	I	A	S	T	O	D	A	M	A
O	S	K	I	L	A	S	I	R	U
T	X	E	R	R	O	L	K	A	N
I	A	D	E	M	U	A	Z	G	A
D	O	A	K	A	L	O	A	H	I
O	Z	E	R	A	M	I	R	K	O
M	I	N	T	E	G	I	A	E	B
U	S	T	E	L	K	O	B	P	A
H	I	R	U	A	S	T	A	S	A
I	Z	B	I	K	O	L	E	G	O

# AKIKI KO

I man Olatu



umean moda  
**seim**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnua. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

**AKEITEGIA**  
**GATV & LORA**  
IGORRE

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnua 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
KOSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
TLF. 94 631 92 00

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ  
ZEIN ERDARAZ  
Lehendakari Agirre 31  
Tfnua: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@telefonet.net

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...  
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA  
Tfn. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-40-54

**Orre**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
L. Agirre, 2.  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnua: 94 673 64 25

Pinturas Aratia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta euskaraz zein erdaraz  
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83  
e-por: vnozulu@euskatel.net



## BATIRTZE MENDIA ETA IKER IBARRONDO

## Mendia eta Ibarondo Zeanurin ospatuko dan Euskadiko Trikitilari Gazteen Txapelketako finalean

Batirtze Mendiak eta Iker Ibarondok 18 eta 16 urteko zeanuriztarrek herriko jaietan jokatuiko dan Euskadiko Trikitilari Gazteen Txapelketako finalean parte hartuko dabe abuztuaren 15ean arrastiko 18:00etan. Lehenengo aldia da zeanuriztarrik txapelketan parte hartzean dabena. Jenteak emondako animoakaitik ebatzi eben parte hartzea. Horregaitik, garrantzitsua iruditzen jakie herritarrek gustura geratutea.

Rakel Aldekoa Diez

**Noz hasi zinien instrumentuok jotzen? Zergaitik aukeratu zenuen trikitia eta panderoa? Beste instrumenturik jotzen dozue edo jo dozue?**

**Iker Ibarondo:** Ni 8 urte gaz hasi nintzan trikitixea jotzen. Hasikera baten, pianoa gura neban jo asko gustetan jatalako baina amak esan eustan trikitixea politagoa dala eta hortik hasi nintzan trikitixea jotzen. Hasikeran apur bat desilusionata egon nintzan trikitixegaz baina oin ez neuke aldatuko ezergaitik be. Aurreko urtean hasi nintzan panderoa be jotzen ikasten.

**Batirtze Mendia:** 8 urte gaz hasi nintzan trikitixea ikasten eta handik bi urtera panderoa. Urte bitan klase bietara joan nintzan eta lau urteren ostean trikitixea itxi neban eta panderoagaz bakarrik se-

gidu. Momentu baten klase bietara joaten nintzan baina gehiago gustetan jatan panderoa trikitixea baino, gehiago ensaietan neban, garrantzia gehiago emoten neutsan... Batzuetan perkusinoa jotzen dot, esaterako, "txirlak", kajea...

**Zelan animau zinien parte hartzean? Noz hasi zinien txapelketa honetarako bereziki prestatzen?**

**B. M.:** Oin dala urtebetetik edo holan hasi ginan fuerteago jotzen; konjuntoko talde bat egin genduan, gehiago ensaietan genduan eta mailak gora egin eban. Orduan gu biok hasi ginan bikote moduan jotzen, lehenengo auzoan eta gero kanpoan, ezkontzetan... Baina konjuntuan be jotzen genduan eta dogu. Horregaitik, kanpoan jotzen hasi ginan eta Zeanuriko jenteak be ikusten eban mailak gora egin dauala eta herrikoak, udaletxeok, irakas-

leak, gurasoak animau ginduzan parte hartuten txapelketan. Jentea prepartetan ibili da baina inoz ez da heldu inoz txapelketan parte hartutera.

**I. I.:** Gure maila nahikoa altxau dogu baina batez be jenteak animau gaitualako parte hartuko dogu txapelketan.

**Non ensaietan dozue?**

**B. M.:** Nire etxeko terrazan ensaietan dogu. Barruan oihartzuna dago eta ez da hain ondo entzuten.

**I. I.:** Auzokoak pozik egoten dira kanpoan ensaietan dogulako.

**37. edizinoa dan arren, eta beti Zeanurin egin dan arren, zuok zarie herriko lehenengoak bertan parte hartzean. Presinoa handitu egiten dau hori jakiteak?**

**B. M.:** Nik pentsetan dot trankil gagozala. Badakigu maila handiko jentea dagoala eta ez dogu pentsetan irabaziko dogunik. Gura doguna da herritarrek ez dezepzionau; hau da, herriaren aurrean ondo geratu, jentea pozik geratutea.

**I. I.:** Oindio presinorik ez dogu igarten baia hurbilduten danean...

**Zelango trikitixea daukazu? Eta panderoa? Ze marka gustetan jatzue?**

**I. I.:** Zero Sette markako trikitixea daukat. Alokairuan daukat, ze hasi nintzanean ez nenkian zenbat denpora egongo nintzan trikitixea jotzen eta bakotxak 2.000 euro balio dauala jakinda alokatu egin neban. Oin, 9 urte ibili eta gero, enkargau egin dot trikitixa bat Zero Sette markakoa.



Marka hau da gehien erabilten dana, merkeagoa da eta kalidade ona dauka.

**B. M.:** Nire panderoaren egilea Agirre da. Gustetan jatan zaratea eta narrua dauka. Ikutukeran be suabea da eta soinu polita dauka nire ustez.

**Zer joko dozue? Kanten le-trea zuona da?**

**I. I.:** Jotea, porrusaldea, fandagoa eta arin-arina joko doguz. Sartuteko biribilketea joko dogu baina ez dau kontetan puntuetak. Jotea eta porrusaldea kantetan doguz, koplak daukaguz.

**B. M.:** Letrak nire ahizteak sortu dauz, Ainhoak. Guk esan geuntan gitxi gorabehera zer gura genduan eta berak idatzi ditu.

**Urteokaz indarra galdu dau txapelketeak.**

**B. M.:** Nik pentsetan dot ikustea aspergarria izan daitekela ez bajatu benetan gustetan edo ez badozu aituten benetan.

**Jenteak herrietako jaietan eta auzoetako jaietan joteko deitzean zaitue?**

**B. M.:** Zeanurin hori konjuntua daukagu ezta, orduan segun ze lekutara gehienetan konjuntua-

gaz joaten gara. Bestela nik ezin badot ba beste bat doa. Diman eta Lemoan be deitu deuskue joteko. Kanpoan jo izan dogunean beti kobrau izan dogu. Gure herriaren oin arte ez, baina Udalagaz hitzarmen bat egiteko asmotan gabiz, baina oindino ez dogu egin.

**I. I.:** Ezkontzetara, beste herri eta auzoetan joteko be sarritan deitzean deuskue.

**Zeintzuk dira zuon erreferenteak musika munduan? Noraino heltzeako asmoa daukazu?**

**I. I.:** Gatxa da esatea. Adibidez, Kepa Junkerak egiten dauz kanta batzuk oso onak, baina ez diranak hain famosoak be, Julen Alonsok adibidez, sano ondo jotzen dau. Erreferente bat holan ez daukat. Igual hartuten dot kanta bat eta esaten dot "jo ze ondo jotzen dauan honek" eta igual idolo moduan hartzen dot.

**B. M.:** Nik pentsetan dot panderoari garrantzi gitxiago emoten jakola eta nik ez daukat erreferenterik baina ideak hartzeako eta, txapelketetako bideoak ikusten dodaz.



**IGORRE  
FISIOTERAPIA  
ZENTROA**  
Elexalde, 4  
48140 Igorre  
94 631 55 08  
igorre@bizkaifisios.com

**izkaifisios®**

**Areatzako jai zoriontsuak opa deusueguz!**

**ANDRA  
MARI  
KLINIKEA**  
Pontzi Zabala, 1  
48960 Galdakao  
94 457 23 64  
galdakao@bizkaifisios.com